

uk

129. zenbakia / 2007 abenduak 15



AKI VERSARIO

Urteko preziorik onenak



-33%
ko surrerpena
79,95 118,00

ERRETXINAZKO
ARMAURU
MULTZOA

Errot-armairua. Ref. 114000 **169,00**
Kasa. Ref. 121304 **149,00**

-35%
ko surrerpena
6,45 9,90

EXTREME AC4 ZORU LAMINATUA
(CLIC MONOLAMA)


Kola gabeko atrotaketa sistema, olio angeluarekin. HDF oinarria. Errotoritate AC4, lodiera 7 mm. 2,258 m² / paketea. Haritz errealaren eta haritz naturalaren lor diruzkoak. Ac4-ukabera errealitatean. 10 urterako boterea. Ref. 111400

10,00 22,40
paketea paketea

-12%
ko surrerpena
259,95 295,00

"TOSCANA" HIDROMASAJEKO
KABINA

Diribil laudera. 5 mm-ko egutassun beira. Aluminiko perflera eta azbala. 6 jet gidagarriak, hautagarri digitaletako argia eta sarrerapena. Ref. 110000



SEKULAKO
BEHERAPENAK



AKI BILBO-LEIOA
Artea Merkatal Zentroa
Tel. 944 91 46 09 e-mail: bilbao@aki.es
www.aki.es



Ideas más a mano

AZAROAREN 29TH ABEZTUAREN 15A ARTZ.

Brikolajea - Lorezaintza - Dekorazioa

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Itsas txakurra Gorlizen, Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Portu Zaharra 1940-2007.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Jorge Alva.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Euskara Showa, Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. Arropa garbiketa Portu Zaharrean.
30. BERBETAN. Pakiko Urretxua, Jokin Aspuru.
34. FOTOGRAFIA. Eguzkigrafiak, Diego Lopez Calvin.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Leketiko zine eta bideo bilera.
43. MUSIKA. Chalwa band reggae taldea. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Jainkoaz galdetzka. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Ibon Lavin txirindularia.
46. ELKARRIZKETA. Jose Luis Ramos Uranga.

AMAITZEKO

49. SUKALDARITZA. Javier Urretxua, Jabiton.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Chunga taldea 1948an, Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Ainere Tolosa, Ander P. Goikoebea.

Ur biltegia Getxon, Diego Lopez Calvin



30 Pakiko Urretxua



11 Jorge Alva

Berbetan

Algortar peto-petoa. Ikastolako presidente ohia, Getxoko alkate izandakoa, herriko medikua 40 urtez; bizitza oparoa Pakikorena.



21 Itziar Bustamante



34 Eguzkigrafiak



46 Jose Luis Ramos Uranga



54 Ainere Tolosa

Bilatu zure Renault "Km.0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

www.seminuevosengetxo.com

BILBO BERRI
Bizkerre, s/n - ALGORTA. Tel. 94 430 68 81

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Ander P. Goikoetxea,
Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Inge Beitia

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bitor Egurrola,
Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezcaga, Itaso Arana,
Gaizka Escudero, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra
Lepoan Euskara Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF


LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarten
Topaguneko partaide da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



gugeu

Azkenaren aurrekoa

Esaten denez, onena amaierarako ustea izaten da aukerarik egokiena. Ez dakit zenbaki honetan gure onena emateko kapazak izan garen, baina ahalegindu, ahalegindu gara. Burua Gabonetako oporretan daukagu dagoeneko eta horrela lan egitea ez da batere erraza izaten.

Askorentzat magiaren eta ilusioaren garaia izaten dira Gabonak. Beste askorentzat aldiz, zentzu bako ospakizun garesti bat besterik ez. Euskaldunok, menditik jaisten den ikazkin tripaundiari etxeko atea zabalduz ematen diegu hasiera jai hauei. Algortako Olentzero Batzordeko kide den *Enanorekin* berba egin dugu horri buruz.


Bestalde, Urretxua medikuarekin berbetan ere ibili gara. Algortar petoa, Franco osteko Getxoko lehenengo alkatea, San Nikolas ikastolako presidentea... ez da gutxi gizon honek egin duena. Gainera, kasualitate hutsa, bere semea den Javier Urretxua sukaldaria aurkituko duzue ale honetako azken orrietan.

Musikari dagokionez, gabon-kanten orde, Jamaikako doinuak ekarri ditugu oraingoan, Chalwa band Urdulizeko taldearen eskutik.

Dena den, 2007ari agur esan aurretik, zenbaki bat gelditzen da oraindik. Lasai egon, neurona guztiak utzi behar baditugu ere, ez dizuegu hutsik egingo. ✓

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua




Gorka Vázquez

aipagarria > GEHI kirola



Euskararen normalkuntzarako bidean pausu berri bat eman dute Getxon. Herriko 40 kirol elkarten euren jardueretan euskararen presentzia bermatzeko eta erabilera bultzatzeko hitzarmena sinatu zuten abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, hain zuzen ere. Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak konpromiso hori betetzen lagunduko die, behar dituzten zerbitzuak eta laguntza emanez. Getxo Euskalduntzeko Hitzarmenaren barnean kokatuta dago ekimen hau eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen laguntza izan du.

Hitzarmena sinatu zuten taldeetako ordezkariak



[irudia]

GORLIZ, 2007

Itsas txakurra Gorlizen / *Sahara* ez da ohiko itsas txakurra. Eskoziako iparraldeko ur hotzetakoa izan arren, Saharari ur epelak gustatzen ei zaizkio. 2006ko irailean Marokoko itsasoan agertu zen makal eta gaixorik 60 kiloko itsas txakur edo foka hau; hortik dator kio Sahara izena. Marokotik Tenerifera eroan zuten han osatzeko. Ondoren, hegazkinez Ingalaterrara. Aurtengo urrian berriz, Orkneyen (Eskoziako) libre utzi zuten eta hilabete bat beranduago Ondarroako portuan noraezean agertu zen. Bidaia luze eta nekagarriaz indarberrizeko Gorlizko Aldundiaren zentruan egon da abendura arte. Orain, adituek bere kasua aztertzen ari dira Ingalaterran. ○ / Argazkia: **Asier Mentxaka**

ERANDION
berbalagun

Ikasten dabiltzanekin berba egiteko...
...ordu bete astean, bai?

Euskalduna bazara, emaezu laguntza; eskertuko dizute-ta!

ANIMA ZAITEZ!!

Tel.: 94 467 27 81 (16.00etatik aurrera, Astialdearekiko atzeganera)
658 70 93 32 (Leire)
e-maila: berbalaguna@gmail.com
helbide postala: San Jeronimo 14 behea • Alzaga

ERANDIO ELIZATEKO LIDALA

AYUNTAMIENTO de la Antigua de Erandio

BFA DFB





[lehen]



GETXOKO UDAL LEIURUTEGIA

[orain]



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / PORTU ZAHARRA 1940-2007

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > garbi eta garbi



Algorta, 2007ko azaroa

Testua: **Xa2 Paya**
Argazkia: **Asier Mentxaka**

1

Gustavo utzi eskolan eta korrikaldi itzela,
"es la tercera vez que me llega tarde, Manuela"
Dena takoi ta franela atetik joan da bela...
une horretan gogoratu dut umea nintzela
fedez ikasi nuela
Jaunak, kristau on bezela,
ate bat itxi eta leiho bat zabaltzen duela.

2

Nagusiari uste dudana garbi esaten baneki!
Bi belarriak ezin garbituz joaten zait beti:
atea azkar ireki eta badoa ederki,
hori lixiban sartuta ere ezin garbi euki!
Ez da inoren erruki, ez da itzuliko aurki,
kristalak nekez baina eskuak garbitzen badaki.

3

Kalean behera abiatu da, agurrik ez inori,
jendea niri begira dago ez nadin erori,
esku bete trapu hori kristala igurtzi, tori,
nahiz eta beti gelditu ohi den mantxa bat edo bi horra hor orban bat, lodi,
ezin dut garbitu ongi...
nagusiaren kontzientzia izango da hori.

* Doinua: Langile baten semea naiz ni

Uribitakoran parte hartu nahi duzu?
Bidaliezaguzu atal honetan agertzea nahi zenukeen argazkiren bat eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

internet > blogen fenomenoak heldu da gurera!

Leioako skateparkeko lagunaren fotologa: www.fotolog.com/leioask8park

Ez pentsa Uribe Kostan atzean gelditu garenik teknologia kontuetan. Blogak tresna ezin hobea dira gura dugun informazioa zabaltzeko; ondo baino hobeto dakite hori eskualdeko elkarte, kolektibo eta banakoek. Sarean kuxkuxean ibili gara eta Bizarra Lepoan eta EGIZU elkartearen, Txorimalo, Udondo eta Itzubaltzeta gaztetxeen, Barrikako Piragua Taldearen, Getxoko Euskal Herriaren Euskaraz kolektiboaren, Berangoko Gaztelekuo lagunaren eta Uribe Kostako Amnistiaren aldeko mugimenduaren blogak aurkitu ditugu, besteak beste. Hauetan, antolatzen dituzten ekimenen berri eman, argazkiak eskegi eta internauten iradokizunak jasotzen dituzte. Bestalde, badaude sarean bere leioa zabaldu nahi izan duten banakoak ere. Ikustea besterik ez dago www.fotolog.com web gunean aurki ditzakegun eskualdeko blogari-argazkilaria. o

bertsolaritza > gerra garaiko Uribe Kostako bertsolariei omenaldia



Azaroaren 23an bertso saio berezia antolatu zuen Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE) Euskal Kulturaren Jardunaldien barruan. Bertan, gerra garaiko Uribe Kostako bertsolaria omendu zituzten. Andoni Egaña, Xabi Paia, Amets Arzalluz eta Jon Maia bertsolari garaikideek, Asentzi Bidaurrazaga (Getxo), Florentzi Zarraga "Plantatxu" (Leioa), Eusebito Roura (Sopela), Eusebio Zubiaga (Urduliz), Manuel Ardeo "Pilatos" (Berango) eta Jose Gaubeka "Portu" (Lemoiz) bertsolari ohien azalean jarri ziren egun batez. Fredi Paia izan zen gerra garaietara eramane eta lubakietan kokatu zituena. Saioa amaitutakoan, omenduen senideei oroigarriak eta lore-sortak banatu eta mokadu bat hartu zuten denak elkarrekin. Oso giro polita sortu zen; izan ere, gazte denborak oroitzeko aukera izan zuten Villamontera hurbildu zirenetako askok. o

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
280808 Getaria
Gipuzkoa



...harria



...lehengo garaiak...




...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

[talaia]

fotografia > fotorreto 2007 argazki erakusketa



Erakusketan ikusi ahal izango den argazkietako bat

Abenduaren 10etik 16ra izango da Areetako Geltokiko plazan Fotorreto 2007 argazki erakusketa. Bertan 200 argazki inguru jarriko dira, Algortako San Nikolas Liburutegiko bildumatik hartuak. XX. mende hasieratik gaur egun arte hartutako irudiak izango dira, Getxo eta getxoztarrak aro ezberdinetan ezagutzeko aukera emango dutenak. Aurten, Areeta eta Erromo auzoetako argazkiek eta argazki-artxiboaren fondoari eginiko azken ekarpenek garrantzi berezia izango dute. Herritarren laguntza ezinbestekoa izango da argazkietan agertzen diren pertsonak eta lekuak identifikatzeko; horretarako, koaderno bat egongo da erakusketan bertan. Getxoko argazkien artxiboan partikularrek eginiko ekarpenak daude; nahi duenak liburutegian utz ditzake bere argazkiak. Bertan, kopia digitalizatuko dute eta originala jabeari itzuliko diote. Gutxika hasiz joan da Getxoko argazki-artxiboa; gaur egun, 7000 argazkitik gora dauzka. ○

erakusketa > Erandioko Murueta ontzioletako argazki-bilduma fnac-en



Alakrana itsasontzia

Alakrana, itsasontzi baten eraikuntza izenpean, argazki erakusketa izango da Bilboko Fnac dendan urtarrilaren 5era arte, Ricky Davilaren eskutik. Honetan, Erandioko Murueta ontzioletan sortu zuten *Alakrana* itsasontziaren jaiotza prozesua kontatzen digu artistak. Erakusketa bi zatitan banatu dute; lehenengo 17 argazkiak sarrerako horman ikus daitezke eta gainerako 18ak forum deritzon gelan. Bilboko erakusketak aukera berriak eman dizkio 2005. urtean eginiko argazkiei, hasiera batean liburu batean jaso behar zituztelako bakarrik. Zuri beltzean egindako 35 argazkiek, industriaren loraldiaren garaiak ekartzen dituzte gogora. Atunetara joateko ontzia Muruetako ontzioletan nola eraiki zuten jasotzen dute eta prozesu osoan metala eraldatzeko lanak eskultore batek egiten dituenarekin alderatzen ditu Davilak. ○

[erretratua]



“1976tik erre izan da Algortan Olentzero eta guk erretzen jarraituko dugu” dio Enanok

Jorge Alba “Enano” > Algortako Olentzero Batzordeko kidea

Algortako Skaut Taldearen bitartez hasi zen Jorge Olentzero Batzordean lan egiten. 1991. urtean Kultur Etxeak egindako lanarekin desadostasuna agertu eta batzorde independente bat sortu zuten elkarte batzuen artean: “*Erregeena bezalako kalejira egiten zuten: subiltzaileak, Donald ahatea... Guk herrikoiagoa egin nahi genuen*”. Agurra Dantza Taldea, Itxartu, Algortako Skauta eta ALBEk osatzen dute gaur egun Horra, horra Algortako Olentzero Batzordea. Hiru seme-alaba ditu Jorgek eta tripaundia menditik jaisten den eguna oso berezia da berarentzat oraindino: “*Nire etxean Olentzero baino ez da existitzen eta horregatik egun horren magikotasuna mantentzen saiatzen naiz*”. Gauza erraza ematen badu ere, urria hasieran hasten dira antolaketa lanekin. Aurten, ohiturari jarraituz, kalejiraren ostean San Nikolas enparantzara helduko da 8ak aldera; bertan bere istorioa kontatu eta gero, agur esango digu sugarren artean: “*Algortan 1976tik erre izan dugu. Txikia nintzanean Olentzero erretzen ikusten nuen urtero eta ez dit inolako traumarik sortu. Guk ohitura hori mantendu nahi dugu*”. Euren lana oso garrantzitsua bada ere, ezinbestekoa da jendearen parte hartzea: “*Algortarrak arrantzaletz jantzi eta musikarien atzetik joatea gura dugu. Ikustea polita da, baina are politagoa parte hartzea*”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan **Reprografia**

global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antigua Golf - Getxo
Tf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Kartelak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
- enmarkaketak •



Emakumeen kontrako bortizkeria

Andrazkoen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren harira zenbait ekimen egin dira udalerrian; Udalak besteak beste, **nerabeei begirako prebentzio kanpaina** ipini du abian

Emakumearen Erakundeak jaso dituen datuen arabera, andrazko gazteenganako indarkeria sexistak behera egin beharrean, goranzko joera izan du azken urteotan. "2007ko abuztura arte tratatu txarrak salatu dituzten emakumeen %41ak 30 urte baino gubxiago ditu".

Azaroaren 25a da Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna. Han eta hemen hamaika salatze-ekimen antolatu ziren, udalerrian berbarako: herriko Alboa, Andrak, Bilgune Feminista, Eskuz-Esku, Etxekin, Gizatiar eta Roda emakume elkarteek deituta indarkeria-egoerak salatze-ko kale-agerraldi ixila egin zen Areetan, azaroaren 23an; eta aho batez onartutako agiriari gainera, Udalak nerabeei zuzendutako sensibiltzazio eta prebentzio kanpaina ipini du abian.

Egitasmoa aurkeztu zuenean, Getxoko alkate Imanol Landak Emakumearen Erakundeak agertutako datuak izan zituen gogoan: "gero eta gehiago dira indarkeria egoerak jasaten dituzten emakume gazteak". Hori dela eta, Aukera Berdintasuneko zinegotziak azaldu zuenez, *Maitasuna ez da mando batez kontrolatu daitekeen jokoa. Txo! Kontrolatzen? Zure urrutiko kontrolagailua birtuala da, baina ni erreala* kanpainak helburu hirukoitza du: "neska gazteek beraien kontrako indarkeria egoerak identifikatzen laguntzea; mutil gazteek jarraera sexistak identifikatzea eta jarraera horiek gizarte mailan ere identifikatzea". Horren ildotik, hainbat ekimen gauzatzan dabilta, berba-



Emakumeen aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira Areetan egindako agerraldia

rako: 30.000 postal banatu dituzte etxeko postontzietan, 1.000 komiki jarri dituzte eskuragai ohiko lekuetan eta, Bigarren Hezkuntzako zentroetan, 200 kartel ipini dituzte metro geltokietan, irratietan ere eman dute horren berri, Berdintasun sailaren EMEKI aldizkariaren azken zenbakia emakumeen kontrako indarkeriari berenberegiz zuzenduta dago...

«Gero eta jokabide sexistak, baztertzailak eta biolento gehiago gertatzen dira gazteen artean.»

Kanpainak 13-18 urteko gazteak kontzientziatu eta erne egotea gura du, "bartzuetan normalak diruditen egoerak emakumeen aurkako indarkeriazko jarraera abisua izan daitezkeelako". Hala, DBHko 3. mailako (14-15 urte) 12 talderentzat hainbat

lantegi antolatu dituzte, hurrengo gaiak lantzeko asmoz, esaterako: sexu eta genero sistema, sozializazio prozesua, maitasunaren arazoak, indarkeria sexista eta indarkeriaren kontrako lana etab.

Emeki aldizkariak azkenengo zenbakian dioenez, "Gero eta jokabide sexistak, baztertzailak eta biolento gehiago gertatzen dira gazteen artean". Horrez gainera, "eskoletan egin diren azterlanen arabera, neskak ez dira kontrolatzen mutilen zenbait jokabide (nesken lagunak, sexualitatea, janzkera edota ordutegiak kontrolatzea) indarkeria matxistaren adierazleak direla, eta ez maitasunaren erakusgarri", jakinarazten du. Beraz, erasoak gero eta bortitzagoak direla eta erasotzailak gero eta gazteagoak direla ikusita, gazte begira egin dute kanpaina. Erasoak, indarkeria egoerak jasaten dituzten gainontzeko adin tartetako emakumeak ahaztu barik. ○

XX. urteurrena bete berri du Erromoko Ibar Nagusien Etxeak



Erromoko Ibar Nagusien Etxeak 5.000 bazkide inguru dauzka

Oraintsu ospatu dute Ibar Nagusien Etxeko ia 5.000 bazkidek egoitzaren 20. urteurrena. 1987ko azaroaren 21ean zabaldu zituen ateak Erromoko Lope de Vega kaleko 12. zenbakian Nagusien Etxeak, eta garaiko arduradunek akorduan dutenez, orduan 100 pezeta ordaindu behar zituzten bazkideek. Urtemuga ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu zituzten, berbarako: 20 urteotan zendutako bazkideen omezezko meza, bazkideek beraiek ekoinzitako Nagusien Etxeko gizataldearen gaineko bideoaren emanaldia, dantzaldia, pintura lantegiko ikasleen erakusketa, Kantariak abesbatzaren entzunaldia...

Getxoko alkate Imanol Landa ere egon zen ospakizun ekitaldietan eta hurrengo gogoa egin zuen: "zentro aitzindaria da, udalerrian oso errotuta dagoena (batez ere Erromon eta

Areetan) eta partaidetzaren eta autogestioaren aldetik eredu garria da". Horrez gainera, Udaletik beti "ekimenez betetako eta partaidetza handiko zentro bizi baten" alde egingo dutela jakinarazi zuen. Hori lortzeko asmoz, hainbat programaren eta baliabideren bitartez ekintzen egitaraua hobetzen ahaleginduko direla azaldu du Getxoko alkateak; eta eraikina zaharberritzeko lanak egingo dituztela iragarri du. Lanok legegaldia amaitu baino lehenago bukatzea da Udalaren helburua; oster, proiektu zehatzik ez dago momentuz, horregatik ezin dute ziurtatu epe horiek beteko direnik.

Hala bada, Ibarreko gazteak zoriontzeari besterik ez zaigu geratzen, zer dira ba 20 urte! Bost urte barru zilarrezko etzeiak ospatzeko elkar ikusiko dugulakoan... Bejondeizuela! ○

PUNTA BEGOÑAKO GALERIAK ETA BARCELO HOTEL-SAREA

Barcelo hotel-sareak Punta Begoñako eraikin historikoa luxuzko hotel bihurtuko zuela aspalditxo jakin genuen. Eraikin berriaren itxura ere erakutsi zuten, eta esan ere esan zuten, eraikinaren kanpo aldea gaurkoaren irudikoa izango zela. Ostera, azkenengo egitasmoak hautsak harrotu ditu. Hurrengo UKren zenbakian gaia sakonago aztertuko bada ere, horra hor gako batzuk: Labein laborategiek egindako azterketan oinarrituz Getxoko Udalak galerien egitura oso hondatuta dagoela ondorioztatu du, eta zaharberritzeko Barcelo sareak proposatu duen guztizko eraispena ontzat eman du. Eraikina kultur ondareztat izendatuta egonik, botatzeko baimena Bizkaiko Foru Aldundiak eman behar du. Bestalde, hotel sareak egindako eskaera berriak eta, Getxoko Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean 5 aldaketa onartu beharko ditu, Ezker Batua salbu, gainontzeko udaleko alderdiak ados ei daude. Amaitzeko, Bizkaiko Arkitekto Eskola eraikina botatzearren kontra agertu da, "zaharberritzeko beste baliabide tekniko onargarriak daudela" uste dutelako.

EREAGAKO IGOGAILUA SARITU DUTE

Hainbat hedabidek adierazi dutenez, *Elevator World* elkarteak eta aldizkariak, Munduko igogailu inklinatuaren alorrean, Ereagako igogailuari eman diote onenaren saria. Horretarako, igogailuaren zenbait alde goraiatu eta kontuan hartu dituzte, esaterako, konponbide berritzailea izan dela Algortako goi aldea eta hondartza lotzeko oztzopoa gainditzeko.

80.000 EURO 42 ELKARTETARAKO

Gizarte Zerbitzuakaz elkarlanean diharduten 42 erakunderen artean 80.000 euro banatu ditu Udalak. Gizarte Zerbitzuetan izena emandako 81 elkartetatik 46k egin dute diru-laguntzen eskaera, eta 42k jasoko dute.

SAN INAZIO
AUTOESKOLA
1951n SORTUA

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
berrikuntzak

- igeltserotza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illeta kalea 1 • ALGORTA



Torreña 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Victor Muñoz eta Irkus Ansotegi > pandero-joleak

“Polita da ikustea tresna berdinean musika erabat ezberdina egin daitekeela”



Pandero eskolak ematen dituzte Erromon, Zubilletan, Geroan, Bilbon, La Cuadrán, Portugaleten, Zallan...

Orain dela 8 urte, 18 zituela, hasi zen panderoa jotzen Victor Muñoz; Irkus Ansotegik 14 urte zituela hartu zuen esku artean panderoa, orain 15 urte inguru. Itxartu taldean ezagutu zuten elkar bi getxoztarrek eta Koldo Iturbe izan zuten irakasle. Gaur egun pandero irakasle dira eurak ere. Iragan hilean Getxon egin zen Nazioarteko Trikitixa jaialdian jardun zuten.

—Getxoko Nazioarteko Trikitixa jaialdian argi ikusi zen trikitixa gure mugetatik kanpo ere jotzen dela.

—Getxon Lekiñoko bi lagunegaz ibili ginen. Eurek pandero-jole bi behar zituzten eta elkar ezagutzen genuenez... Bizkaiko trikitilariak ia denek ezagutzen dugu elkar, askotan jotzen dugu alkarrengaz. Nik Xabi Aburruzagaz jo ohi dut eta Victorrek Koldo Iturbegaz. Neu hasi nintzenez ere, trikitixa ezagutzen nuen tresna euskalduna delako, Euskal Herrian jotzen dugulako. Gero barneratzen zara mundu horretan eta jakiten duzu trikitixa, soinu diatonikoa (zabaltzerakoan eta interakoi soinu ezberdinak ateratzen dituen), langile italiar batzuk Euskal Herrira trenbidea egitera etorri zirenean eka-

rri zutela gurera. Gero jakiten duzu katalanek ere jotzen dutela, eta Mexikon, Kandan, Irlandan etab. Izatez tresna berdina da, berdintsua, batzuek tekla gehiago dauzkate; erabat ezberdina dena estiloa da. Horrelako jaialdiak hori ezagutarazteko-eta ondo datoz, horrez gainera beste kontu batengatik ere bai: batzuk soinuaz erabat aspertuta egon daitezke, eta polita da ikustea beste herrialde batzuetan tresna berdinean musika erabat ezberdina egiten dutela. Egia esan, oso polita izan zen ekitaldia: Mexiko Berriko (AEB) bikoteak esku-soinua eta biolina jotzen zuen, oso musika alai zen, Mexikoko gogorazten zigun; katalanena, ostera, lasaia zen, musikalaria, landuagoa; eta italiarrak, UKn agertu zena, jazz erako musika jotzen zuen;

txundituta lotu ginen guztiok! Kanpora goazenean konturatzen gara, soinulariak hemen baino astiroago jotzen dutela; gurea biziagoa da, eta esaten dute “jo, zelan jotzen duzue soinua”... Baina italiar hori ikusita, bazirudien bost esku zituela!

—Hemen trikitixa panderoagaz ia beti, baina biolinagaz etab. ere bat egin dezake...

—Alde batetik badago betiko trikitixa, jaietako, kale-jiratako hori; eta beste alde batetik, gero eta ezagunagoa da badirela talde asko Euskal Herrian ere, trikitixa rock, pop, fusio... musikagaz nahasten dutenak. Horretan Kepa Junkera izan daiteke esanguratsuen, lehenengotarikoa izan delako, baina gaur

«Trikitixa sasoi bete dago, erabat osasuntsu!»

egun beste asko daude: Tapia bera, Gozategi, Trikitizio, Ene Bada, Urgabe... reggaeagaz bere nahastu dute. Hasiera batean pentsatzen genuen trikitixa zela musika tradizionala, herri txikitian eta ibiltzeko... Derrengoraino egon da kristoren booma, ikusi dugu soinuak ere balio duela beste tresna batzuek jotzeko. Izan ere, guretzat denari euskal kutsua ematen dio, baina beste era bateko musika ere egin daitekeela argi dago.

—Orduan, sasoi dago trikitixa...

—Sasoi bete dago, erabat! Ilkasle gero eta gehiago ditugu; orain ikastolek eskaintzen dituzte eskolaz kanpoko jardueretan soinu eta pandero ikastaroak; hori oso ona dela uste dut, umeek ere ikusten dutelako Euskal Herrian badagoela kultura hori eta badutela aukera dakitena kalen adierazteko. Trikitixaren alde onak dira: kalean gabiltzala ia beti eta, hiletaren batean jo badugu ere, jaiagaz lotzen dela; hori jendeak oso gustuko du. ○

Ekimen andana

Bitartekotza komunitarioa eta Bake-Kultura bultzatzeko helburuagaz



Erakusketa bat ere ipini dute Villamonteko Kultur Etxean

Dagoeneko martxan ipini du Getxoko Udalak Bitartekotza Komunitarioaren eta Bake-Kulturaren Promozio Plana. Orain dela bi urte GEUZen (Garazkak Eraldatzeko Euskal Herriko Unibertsitateko Zentroa) laguntzagaz abiatu zuen Udalak egitasmo hori eta horren helburua ondorengoa da: udalerria bakearen aldeko bidean aurrera eroatea norbanakoaren, familiarren, herritarren eta politikaren arloetan. Helburuak betetzeko asmoz eta plangintza bultzatzeko ekitaldi andana antolatuko dituzte, berbarako: adituen berbaldiak, udal langilei bideratutako trebakuntza eta prestakuntza ikastaroa, erakusketa bat eta umeentzako ipuin-kontalarien emanaldiak. Hala, “Bakearen alde

eta Herritarren Partaidetza” topaketak egingo dira hilaren 11tik urtarrilaren 17ra arte (Villamonte kultur etxean); “Gatazkak konpontzeko trebetasunak eta herritarrek artatzeko laneko bitartekotasuna” ikastaroa jasoko dute Gizarte Zerbitzuetako langileek eta udaltzainek; elkarbizitzaren eta bakearen gaineko bertoko artisten ikuspuntua ezagutu ahal da ikusgai dagoen “Elkarrekin bizi” erakusketan (hilaren 22ra arte; Villamonte kultur etxea); amaitzeko, umei begirako “Bakea ez da ipuina” zikloa prestatu dute, horretan ipuin-kontalarien 6 emanaldia egongo dira (abenduak 22 eta 29, eta urtarrilak 4, 6 eta 8; Erromoko kultur etxean). ○

Informazio gehiago: www.getxo.net

GETXOTIK MUDURA, MUNDUTIK GETXORA HILAREN 16RA ARTE

X. urteurrena ospatuko dute aurten *Getxotik mundura, mundutik Getxora* jardunaldiek hilaren 10etik 16ra bitartean. *Bizitza istorioak* erakusketa izan ezik (Erromoko erakustaretoan, hilaren 15era arte), gainontzeko ekitaldiak Areetako Geltoki plazan ipiniko den karpapean egingo dira (zabalik hilaren 12tik 16ra; egunean 18:00etatik aurrera; bariku eta zapatuan egun osoan zehar, eta domekan goizez bakarrik). Lehenengo egunean (hilak 12, 19:30) klima-aldaketaren gaineko *Una verdad incómoda* (Al Gore) dokumentala emango dute; hurrengo egunetik aurrera lankidetzaren arloan diharduten GKEen eta udalak laguntzen dituen 16 proiektuak azaltzen dituen erakusketa ikusgarria egongo da ikusgai (eta entzungai audiogida bat banatuko dutelako); egunean generoari lotutako *A zancadas* dokumentala aurkeztuko du Carmen Comadrán zuzendariak; barikuan Getxoko GKEek egindako dokumentalak emango dituzte; zapatua izango da Sahararen aldeko eguna eta, azkenik, domeka GKEen azokarena.

ETORKINEN NAZIOARTEKO EGUNA

Abenduaren 19a da Etorrinen Nazioarteko Eguna, horren harira berbarako ekitaldi hauek antolatu dituzte Getxon: *Un Café en cualquier esquina* filmaren emanaldia (hilak 19, 19:30; Getxo Antzokia) eta *No pense que esto me pasaria a mi* antzerki lana eskainiko dute (hilak 21, 19:30; Getxo Antzokia).

IPUIN-KONTALARIAK LA GUSANA LIBURUDENDAN

Irakurzaletasuna bultzatzeko helburuagaz, Algortako La Gusana liburutegian (Teilagorri plaza) txikienezako ipuin-kontalarien emanaldiak antolatzen ditu. Emanaldiok gaztelaniaz dira eta hurrengo zapatuetan ipini dituzte hitzorduak: hilak 15 (12:30), 22 (12:30, 18:30) eta 29 (12:30).



Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Jesus Bilbao > hirigintza zinegotzia

“Nahiz eta guri ez gustatu, araztegia jarriko badute, auzoarentzat aukera bat atara behar da”

Lamiakoko auzotarrak araztegiaren proiektuagaz kezkatuta daudela ikusirik eta gero eta indar gehiago hartzen ari den proiektua izanik, proiektu honi buruz gehiago jakin nahian Txus Bilbao Hirigintza zinegotziarengana jo dugu. Berak argitu digunez, araztegia Madrileko gobernuaren proiektua da.

Aurreko alean, araztegiaren inguruko usteak eta auzotarren keak kaleratu genituen. Gaian sakontzeko asmoz, Hirigintza zinegotziagaz egin dugu berba. Txus Bilbao aditzera eman duenez, 1979. urtean Madrileko gobernuak Lamiakoko lurzorua araztegi bat egiteko gorde zuen. “Hainbat urtean lotan egon zen proiektua, berritua ere abian ipini zuten ia”. Ur presioa dela eta, giza hondakinak beruntz joan behar direla jakinarazi digu zinegotziak, eta horregatik, araztegiak itsaso mailan eraikitzen direla.

Lamiakoko araztegia eraiki baino lehen, hiru pausu eman behar direla azaldu du Bilbao: ingurumenean eduki dezakeen inpaktoaren azterketa Ingurumen Ministerioak eginga; ministerio berberaren esku dagoen araztegiaren proiektua bera, obra nolakoa izango den hain zuzen; eta azkenik, udalari dagokiona, ingurua egokitu. Hala ere, proiektua gaur egun lehenengo pausua-



Argazkian, Txus Bilbao

ren hasierako azterketetan dagoela eta edarra eraikitzeko urteak falta direla aurreratu du leioztarrak, “oraindik ez baitago proiektu finkorik, azterketak baino ez”.

“Uda honetan Ingurumen Ministerioak Udalaren iritzia eskatu zuen eta guk, auzotarreri ere iritzia eska ziezioten esan genien”, esan du zinegotziak. Bere esanetan, Madrileko gobernuari dagokio herritarrak informatzea “berarena da-eta proiektua”.

Indar bi daudela eta haien artean oreka bat bilatu behar dela azpimarratu du leioztarrak: “Alde batetik ekologistak daude txori berezi bat babestu nahian eta bestetik, nahiz eta guri gustatu ez, araztegia jarriko bada, auzoarentzat aukera bat atara behar da”. Gakoa hor dago Bilbaoren arabera: “Norentzat da ibai ingurua? Txorientzat, auzotarrarentzat, kotxeentzat?”.

«Denok gura dugu itsasoa garbi eduki baina araztegiak beharrezkoak dira»

Araztegia gordetzeko parkea eraikitzeaz aparte, herritarrei hainbat eskaintza ematearen alde agertu da zinegotzia. Esaterako, herritarrentzako enplegu eskaintza berri bat, eskualdekoek lotuko diren beste bidegorri batzuk eta pasealekuak aipatu ditu Bilbao.

Hala eta guztiz ere, egungo araztegiak antzinekoegaz zer ikusirik ez dutela adierazi du leioztarrak. “Lehenengo araztegiak oso zikinak ziren, gaur egunekoak berriz ez dira horrelakoak; badaukagu bat hemendik kilometro gutxira (Galindon) eta ez dugu ezer esaten”. Udalak ministerioari ezinbesteko betebeharra eskatuko dio bere esanetan: “Ez dadila merkea izan, abalik eta txikien izatea eta estalita egotea”. ○

Genero indarkeriarik ez

Emakumeek pairatzen duten **indarkeriaren kontrako** kanpaina berria laster abiatuko da



Herriko bost ikastetxetan ikastaroak egongo dira

Leioako emakumeenganako indarkeriaren politika prebentzioan oinarritzen da. Horren adibide, udalak genero indarkeria saihesteko sensibilizazio kanpaina abian jarriko du eskolatan. 10 eta 15 urte bitarteko gazteek jarrera matxistak identifikatzen ikastea da helburu nagusia.

Horretarako, psikologoek, pedagogoek eta soziologoek klaseetan erabiliko den materiala aukeratu dute, rol jokuak, iragarki eta abestiak tarteko. Biolentzia eredu honetako sintomak antzematen ikasiko dute gazteek, baita agresio ezberdinak ere.

Era berean, emakumea gixiosten duten gizonen zein emakumezko estereotipoak aztertuko dituzte.

Ekimena apirilatik ekainera jarriko da

martxan eta 300 nerabe baino gehiagok hartuko dute parte (lehen hezkuntzako ikasleak eta bigarreneko lehenengo mailako ikasleak).

Ikastetxe hauetan egingo da kanpaina: Lamiako Ikastetxea, Betiko Ikastola, Altzaga Ikastola, San Bartolome ikastetxea eta Las Mercedariak.

Ikastaro hauek klaseko ohiko ordutegian egingo dira ikasleak halabarrez joan daitezten. Horren ondorioz, irakasleak koordinatu beharra dago derrigorrezko irakasgai orduak kentzen baitzikiete. Ikastaroaren iraupena berriz, ikastetxearen esku egongo da.

Bestalde, Leioako udalak tratatu txarren adin txikiko biktimei laguntza psikologikoa eskainiko die aurrerantzean. ○

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK

BEST

ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

CORREOS LAMIAKOTIK PIKUETARA ALDATUKO DA

Lamiako auzoan dagoen Correosen egoitza Pikuetako 70 metro karratuko lokal batera aldatuko da datozen egunetan. Aipatzekoa da duela zazpi urte Correos enpresa publikoak Lamiako uztea proposatu zuela. Erabaki honek asko larritu zituen bertako auzokideak garai hartan. Hori dela eta, udalak zerbitzuagaz jarrai zezan, bost urteko konbenioa sinatu zuen. Proiektu berri honeguz zerbitzua bermatzen da. Lekualdaketa Pikuetako lokalaren eskriturak egin arte ezin izango da gauzatu.

ETXE ERAISTEEN KALTETUENTZAKO 20 PISU SOZIAL BIDERATU DIRA

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak eta Leioako udalak sinatutako konbenioari esker, Pikuetan eraikiko diren 58 pisu sozialetatik, 20 Lamiakoko eraisteen kaltetuentzat izango dira. Udalak orain arte 15 eskaera jaso ditu, eta gelditzen diren bostak etorkizuneari izan daitezkeen eskaera berriak asetzeko gorde dira. Gainontzeko 38 pisuak Etxebidek egindako ohiko prozeduraren bitartez banatuko dira. Aipatutako guztiak alokatzeko pisuak dira.

BIDEGORRI BATEK ARTATZA ZEHARKATUKO DU PINOSOLORAINO

Leioako bidegorrien sarea Getxokoakaz lotu eta Sopelaraino heltzeko asmoa dago. 2008ko irailean hastekoak dira bizikleten sarearen obrak.

Eskola Escuela

Plater-Tiro eta Ehizarako Kirol-Ekartera



Taberna eta kartutxo denda

Posta Kutxa 33 Leioa
Tel: 94 633 81 59

moda gaztea
opariak

VRATI

Torreña 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

SAN INAZIO
AUTOESKOLA
1951n SORTUA

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

LUBERRI
Basolanak S.L.

Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa

DEITU!

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Zure publikizitatearen hemen
Zure publikizitatearen hemen
Zure publikizitatearen hemen

94 491 13 37

[erandio]

Emilio Garcia > Gau Txori kultur elkarteko kidea

“Ondo pasatzea eta plazan talderen batek jotzen duenean **dantzatzeko gai** izatea da da helburua”



Emilio Garcia dantzan

Lau bat urte daramatza Gau Txorik Erandioko merkatu zaharrean euskal dantza ikastaroak ematen. Emilio Garcia elkarteko kideak dioenez, plazako dantzak ikasten ondo pasatzea da helburua. Datorren urteari begira, ohiko taldea ez ezik, zerotik hasiko den talde berri bat ere sortuko dutela jakitera eman du erandioztarrak. Ikastaroak urtarilean hasiko dira.

—Zer dela eta hasi zineten euskal dantzak ikasten?

—Orain dela lau urte euskal dantzaren inguruko tailer moduko bat egin genuen. Tailerrak helduei zuzenduta zeuden eta ez umeei. Helburua batez ere, ondo pasatzea eta plazan talderen batek jotzen duenean dantzatzeko gai izatea da. Filosofia horregaz sortu genuen ikastaroa. Jota eta arin-arina ikasten hasi ginen, ondoren hainbat jauzi, eta azkenik larrain dantzarekin ausartu ginen. Den-

borarekin taldea ahuldu barik indartu egin da. Erandioko jaietan adibidez, txosna gunean askok egiten dugu dantza. Arrakasta hori ikusita, beste jauzi eman behar genuen, eta Patxi Laborda Aiko taldeko dantza irakaslea ezagutu genuen. Aiko taldeak geuzaz oso ondo konektatzen den dantzari buruzko ikuspuntua lantzen du: dantzei erraztasunez hurbildu behar zaie. Euregaz lanean hasi eta egia esanda, berria asko zabaldu barik, 40 bat lagun eman zuten izena. Guk ez dugu puntako dantzariak bezalakoak izan nahi, plazan jota, tangoa edo dena delakoa jotzen duten bakoitzean dantzatzeko gai izatea baino ez.

—Zer dantza mota ikasten dituzue bertan?

—Jauzi batzuk, jota, arin-arinak... pasodoblea, tangoa eta balsa ere landu ditugu... Labur esanda, plaza dantzak.

—Berrikuntzarik egongo al da datorren urtean?

—Bai. Alde batetik, orain arte dantzan egon direnek hobetzeko teknikak ikasten segituko dute, eta bestetik, zerotik hasitako jendeari zuzendutako ikastaroa martxan ipinik dugu. Hau oso esperientzia interesgarria da era guztietako jendea elkartzen delako. Esaterako, Gazte Asanbladakoegaz harremanetan gaude eta danok batera egiten dugu dantza. Etxekoandreak ere asko ditugu gure artean, adineko jendea... nahaste borrate dago, eta hori oso aberasgarria da; talde polita sortu da.

«Plazak dantzarako berreskuratzea lortu gura dugu»

—Zaila al da dantza egitea?

—Ez, bat ere ez. Kontua da guztiok egin ahal dugula dantza eta kanta. Baina horretarako gorputza askatu behar da. Ez dugu inoiz teletatik balet dantzariak bezala dantzatuko, baina bai plazetan gozatu. ○

Harremanetarako: 679 35 36 90

Haur eskola berria

Azkeneko datuen arabera, **Altzagako 27 familia** daude interesaturik Haur Eskolan



Altzagako eskolak

Erandioko udalak Altzaga Haur Eskola ireki berri du Bekoa ikastetxearen beheko solairuan. Desanexio kaleko 4. zenbakian kokatuta dagoen udalaren lokal batean jarri dituzte aipatutako haur eskolaren instalazioak eta 254 metro koadroko azalera hartzen dute guztira.

Eusko Jaurlaritzak eta herriko erakundeak sinatutako hitzarmenaren ondorioz egin dute Altzaga Haur Eskola, eta Udalak adierazi duenez, “*Erandioko udalak hartutako konpromisoa berresten du, hau da, haur eskola gehiago ireki eta herrian dagoen eskariari erantzun egokia emango dio*”.

Altzaga Haur Eskolak 42 plaza eskaintzen ditu. Bi gelatan banatutako 16 plaza 0 eta 1

urte bitarterako izango dira eta beste 26 plaza 1 eta 2 urte tarterako, bi gelatan banaturatu.

Altzagakoa ireki aurretik, Astrabudua Haur Eskola ireki zuen Erandioko udalak Mezo kaleko 36. zenbakian, DBHko institutuaren ondoan. Haur eskola biek antzeko ezaugarriak dituzte. Erandioko udalak aurtengo urtarilean haur eskola biak irekiko zituela iragarri zuen, Orik 2 urte arteko umeak eskolatzeko dagoen eskaria asetu nahian. Urtarilean ireki beharrean azaroan ireki dute azkenik Altzagakoa eta hainbat herritar kezu izan dira atzerapena dela eta. Laz egindako ikerketaren arabera, Astrabuduko 31 eta Altzagako beste 27 familia daude eskola haue- tan interesaturik. ○

GIZARTE LARRIALDIAK LAGUNTZEKO 30.000 EUROKO DIRULAGUNTZA

Erandioko udalak datorren urteko aurrekontuen 30.000 euro Gizarte Larrialdia laguntzera bideratuko ditu. Ostatu gabeziari eta elkarbizitza-arazo larriari aurre egitea da laguntza honen helburua. Era berean, bazterketa soziala ere saihestu gura dute. Gehien jota 3.000 euroko dirulaguntza jaso ahal izango dute hondatzeko zorian deklaraturako eraikinetan bizi direnek. Era berean, desaloju edota genero indarkeriak eragindako etxebizitza aldaketetarako 2.700 euro emango dituzte. Interesatuek udaleko Erregistro Nagusian egin beharko dute eskaera. Udalak iruzurra zigortuko duela jakinarazi du.

INAUTERIAK IRAGARTZEKO KARTEL LEHIAKETA ABIAN DA

2008ko inauteriak iragartzeko kartel lehiaketarako deia egin du Erandioko Kultur Sailak. Gura duen edonork izango du lehiaketan parte hartzeko aukera eta gehienez ere, bakoitzak kartel bi aurkeztu ahal izango ditu. Irabazleak 1.500 euro jasoko ditu. Lehiaketa honetara ezin da beste lehiaketaren batean saritua izan den lanik aurkeztu, ezta lehiaketa honen aurreko edizioaren batean aurkeztutakorik ere.

GITARRA IKASTAROA EGUENETAN

Erandioko Udal Musika Eskolak, urtero legez, aurtengo gitarra ikastaroa antolatuko du. Ikastaro hau gitarran aurrezagutarik ez daukatenez da. Klaseak egunero egingo dira, 18:00etatik 19:00etara Astrabuduko Musika Eskolan. Ikastaroak 20 euro balio du, 5 asteko iraupena du eta azaroaren 29 hasi zen.

Informazio gehiago: 94 417 07 76

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... **902 54 08 54**

www.arlan.biz

TAO KENTZEA ERABAKI DUTE UDALEKO TALDEEK AHO BATEZ

Aho batez erabaki zuten Sopelako udal talde guztiek herriko gunetik aparkaleku mugatuaren sistema ezabatzea. Erabakia urtarrilaren lehenengo bi asteetatik aurrera izango da eraginkorra. Bestalde, hondartzetako aparkalekuetako TAO bere horretan mantenduko dute, hala adostu baitute alderdiek. Hala ere, Sopelak duen benetako arazoa aparkalekuak direla onartu dute. Imanol Garai alkatearentzat TAO oso ona izan da "arazo asko konpondu dituelako".

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO BANNERRA

Berdinsareak, Berdintasunaren alde eta Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Euskal Udalerrien Sareak antolatutako kanpainarekin bat egin du Sopelako udal web orriak (www.sopelana.net). Banner baten bidez "Maitasuna ez da mando batez kontrolatu daitekeen joko. Txo! Kontrolatzen?" lelopeko kanpaina jakitera ematen du. 13 eta 18 urte bitarteko gazteak kontzientziatzea da helburua, normalak diruditen egoerak batzuetan emakumeen aurkako indarkeriazko jarreraren abisu izan daitezke eta.

EUNATE AGIRRE EUROPAKO BODYBOARD TXAPELDUN BERRIA

Azaroaren 26an izan zen Europako Bodyboard Zirkuituko azken proba Agadirren, Marokon eta Eunate Agirre suertatu zen garaille. Sopeloztarrak aukera ugari zituen txapelidun izateko rankingeko buruan denbora luzea zeraman eta. Beraz, berretsi egin du lortutako ospea lorpen honegatik. Gizonezkoak, bestalde, ez dira ez txarto aritu nahiz eta Silvano Lourenço portugaldarra txapelketako jaun eta jabe izan.

Señe aldizkaria

Ander Deuna ikastolako aldizkaria, urtebeteko hutsunearen ostean, berriro **kaleratuko da**



Señe aldizkariaren antzineko azal bat

Ander Deuna ikastolako Señe aldizkaria berriro kalean izango dugu. Hainbat arazo direla medio, iazko ikasturte osoan ez da kaleratu, baina gabonetarako ohiko martxa hartuko du berriro.

Ikasturte bakoitzean hiru zenbaki argitaratzen ditu Señek, elebiduna da, eta ikastolako familia guztiei ez ezik, Berango, Sopela eta Urdulizko biztanle guztiei ere helarazten zaie, postontzian utzita.

Datorren zenbakia 23.ena izango da; denbora dezente darama, beraz: zortzi urte inguru. Aldizkaria egiten, zuzentzen eta koordinatzen duen Unai Break Señe ikas-

tolako berriez mintzatzen dela aditzera eman du. Hala ere, "elkarrizketa luze bat ere buru-tzen dugu, eta honek ez du ikastolagaz zerikusirik eduki behar", aipatu du Unai. "Azkenekoan esaterako, Hezkuntza Sailburuari egindako elkarrizketa aurki dezakegu. Beraz, ikastolako kontuez ez ezik, hezkuntzako ere mintzatzen gara; gaur egun, orokorragoa da".

Aldizkariaren helburuez galdeturik, Ander Deuna ikastola bera ezagutaraztea eta ikastolan eskaintzen den proiektu pedagogikoa jendeari helaraztea dela azaldu du Señeko koordinatzaileak. ○

Itziar Bustamante > EHSFko presidentea

"Espainiako Surf Federazioa, Euskal Selektzioa Europatik kanporatzeko sortu zen"



Argazkian, Itziar Bustamante

7 urte iraun duen prozesu judizialaren ostean, Auzitegi Gorenak Espainiako Surf Federazioa (FES) ezabatzen duen ebazpena argitaratu berri du. Horrenbestez, Euskal Herriko Surf Federazioari (EHSF) Europako Federazioan berriro egoteko ateak ireki zaizkio.

—EHSFk Europako Surf Federazioan berriro egotea lortuko al du?

—Hala espero dugu! 2000.ertean izan ginen Europako Surf Federazioko kide eta 10 urtez lehiatu ginen Euskal Selektzio moduan. Espainiako Surf Federazioaren sorrera izan zen gure kanporaketaren arrazoia, hala eskatu zuelako Espainiako Surf Federazioko zuzendari-tzak. Orain, Auzitegi Gorenak ilegaltzat jo duenean, aukera berri bat daukagu European sartzeko, baina ez da hain erraza, denbora luzea, bilerak eta lan handia suposatzen du. Baina horretan gabiltza eta nahiko baikorrak gara.

—Zelan ikusten duzu ateratako epaia?

—Pozik gaude, hala izan behar zelako. Orain dela 5 urte Auzientzia Nazionalak hala zabaldu zuen eta epaitegi gorenak baieztatu besterik ez du egin. Ilegalki sortu

zen Espainiako Surf Federazioa eta beraz, nolabait hau aurreikustea erraza zen; prozesu judizialak luzeak izaten dira, baina hau gertatzekoa zen.

—Zergatik uste duzu FESen jarrera hain ezkorra izan dela?

—Guk saiakera anitz egin ditugu eurakaz harreman ona izateko. Espainiako Surf Federazioa Euskal Selektzioa Europatik kanporatzeko helburu bakarragaz sortu zen, azkar eta txarto. Orain dela 4 urte zuzendaritza berria finkatu zen, baina jarrera berbera erakutsi dute. Izan ere, Auzientzia Nazionalaren ebazpena eduki arren, Auzitegi Gorenera eramatea izan zen bururatu zitzaizen bakarra. Azkeneko ebazpena atera ostean, eurakaz hitz egin genuen berriro: ez zuten berria zabaldu nahi eta haien federatuek, surflariak, talde eta eskolek honen berri jakiteko eskubidea eta beharra daukate. Haien jarrera ikusita, sententzia betearaztea eskatu behar genuen.

—Izandako tirabirak federazioko jendea desmotibatu al du?

—Diozun tirabira hauek ez digute lorik kendu, hau bezalako beste ekintza garrantzitsu batzuk ere garatzen baititugu. Motibazioa beti izan dugu, noski, lanean jarraitzeko, eta helburua, European euskal selektzio moduan lehiatzea izan da beti eta

«50 bat surf talde ditugu hego Euskal Herrian, benetan zenbaki altua»

lortuko dugu. Azken finean, talde gaztea, langilea eta oso baikorra gara! Izan behar!

—Sasoi onean al dago euskal surfa?

—Bai. Hortxe ditugu Europa eta mundu mailako rankingeko lehenengo postuetan dozena bat euskaldun. Azaro bukaeran gainera, gertaera gogoangarria izan zen, Ariz Aranburu zarautzara WCT zirkuitu gorenean sartu baita. Top honetan sartzen den lehenengo surflari euskalduna dugu Aranburu, beraz, historikoa oso. ○

DIDAK hamilton IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

LAIKAK Taberna

Bentatu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

ETXEBIZITZAREN ALDEKO PARODIAK

Etxebizitza eskubidea aldarrikatzeko helburuaz, kale parodiak egingo dituzte Berangoko hainbat gaztek hileko azken zapatuetan. Lehenengoa azaroaren 17an egin zuten, udalerriko kale nagusian, ordu bata aldera. Egongela, komuna, logela... dena kalera atera eta pijama eta bainu-bata jantzita gustura ibili ziren, etxean bezala. Abuztuan hasi ziren gazteak etxebizitza eskubidearen aldeko kanpainarekin eta ekintza ezberdinak antolatu dituzte honen barruan: propaganda masiboa, errezero kanpainak... Etxebizitzaren arazoa berangoztarren artean jendarteratzeko, hilabeteko azken zapatuetan egingo dituzte kale parodiak. Abenduaren 29an izango da hurrengoa eta bertara joateko deia luzatu nahi diete gazte berangoztar guztiei.

www.blogak.com/berangonbizi

X. GABONETAKO IDAZLAN LEHIAKETA

Berangoko Udalak Gabonetako Idazlan Lehiaketa antolatu du berriro ere. 1995-2000. urteen artean (biak barne) jaiotako eta Berangon erroldatutako haurrek har dezakete parte. Idazlanek euskaraz egon behar dute eta gaia "Olentzerori Eskutitza" izango da. Berangoetako Kultur Etxean aurkeztu beharko dira abenduaren 14a baino lehen, norberaren datuekin batera: izena, abizenak, adina eta telefono zenbakia. Irabazleen izena urtarrilaren 4an jakinaraziko da, frontoian ospatuko den sari banaketan. Bertan sariak banatzeaz gain, Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoan saioarekin gozatzeko aukera egongo da.

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Jostailu solidarioak

Gehien behar dutenentzako **Olentzero berezia** egongo da abenduaren 22an



Ekimenaren bultzatzaile gazteak

Gaztelekuko lagunek elkartasuna oinarri duen egitasmo berri bat jarri dute martxan berriro ere. Pasa den ikasturtean, Guatemalako emakumeei laguntzen ibili ziren; oraingoan, egoera ekonomiko larrian dauden Berangoko familiarekin lan egingo dute, nahiz eta aurreko proiektuarekin jarraituko dutela aurreratu diguten.

Abenduaren 15a arte, erabiltzen ez dituzten jostailuak Santa Ana eta Berangoetako Kultur Etxetara, Nagusien Etxera edo Udaletxera eramateko aukera izango dute berangoztarrek. Gaztelekuko 13-18 urte bitarteko gazteek, hauek bildu, kon-

pondu eta garbituko dituzte gehien behar duten umeen artean banatu ahal izateko. Zorrozkako Ehize, Mankomunitatea eta Nagusien Etxeko kideen laguntza izango dute, azken hauek jostailuak enpaketatzeaz arduratuko direlarik. Azaroaren 22an Olentzero berezi bat helduko da Berangora eta bildutako jostailu guztiak banatuko ditu gehien behar dutenen artean. Gainera, bere istorioa kontatu eta gabon kantak irakatsiko dizkie atzerriitik etorritako umei.

Honez gain, azaroaren 24an, gaztainak salduko dituzte gazteek eta bildutako dirua Berangoko Pasioko kideei emango diete. ○

Matrako Mendi Taldea > Plentziako itsasadarraren garbiketa

“Plentziako elkarteek aspaldi zeukaten itsasadarra garbitzeko asmoa”



Matrako Mendi Taldeko lagunak irteera batean

Abenduaren 2an Plentziako itsasadarraren garbiketa burutu zuten inguruko hainbat lagunek. Matrako Mendi Taldeak antolatutako ekimena izan bazen ere, herritarren buruetan aspaldi zebilen ideia zen itsasadarra garbitzearena. Guk Nerea Perezekin hitz egin dugu, zuei ekimenaren berri emateko; izan ere, beharrezkoa izanez gero, errepikatzeke asmoa daukate.

—Nola sortu zen ideia?

—Plentziako elkarte gehienak, ingurugiroarekin lotura zuzena ez dutenak ere, itsasadarra garbitu behar zela pentsatzen ibili dira azken urteotan. Guk jendearen asmoa bideratu eta ekimena antolatu dugu soilik. Simas enpresaren, Plentziako Udalaren, Proa elkartearen eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan dugu horretarako.

—Zertan datza ekimena?

—Txalupetan eta txintxorrotan itsasadar barrenean sartu eta pixkanaka garbitzen joango gara. Agertzen den jende kopurua-

ren arabera, oinez ere joango gara, bazterrak garbitu ahal izateko. Taldeetan antolatuko gara eta talde bakoitzak zonalde bat hartuko du. Bueltan hamaiketako egongo da Plentzia Gorri eta Zuri elkartearen egoitzan.

—Ze egoeratan dago itsasadarra?

—Zatirik zikinenak Junkeras baserriaren ingurukoa eta Isuskizarako bidea dira. Lan gehiago dago zonalde horietan.

«Zatirik zikinenak Junkeras baserrikoa eta Isuskizarako bidea dira»

—Lehenengo urtea izan da. Errepikatzeke asmoa daukazue?

—Lehenengo urtea da guk antolatu duguna, baina aurretik Plentziako zenbait lagunek garbitu izan dute. Beharrezkoa baldin bada, errepikatzeke prest gaude. Asmoa itsasadarra garbi mantentzea da. Bakoitzari esfortzu txikia suposatzen dion zerbait egingez oso emaitza politak lor daitezke. ○

AIXERROTA BHI
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

• TEKNOLOGIKOA
• BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASTARTENA

URDULIZ

Telefono: 946 761 128

AJURIA
TABERNA

Andrés Cortina 2
ALGORTA

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

VIEJO CAFE

kopak eta giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

“VENEZIAKO MASKARAK” TAILERRA GOÑI PORTALEN

HOBBY&Art arte eskolako lagunek, “Veneziako Maskarak” tailerra eskainiko dute 2008ko urtarrilaren 12, 19 eta 26an eta otsailaren 2an Plentziako Goñi Portal Kultur Etxean. Parte hartzen dutenek, irakasle baten laguntzarekin, maskarak egiten ikasiko dute eta nahi beste material, apaingarri eta eranskin erabili ahal izango dituzte. Ekintza euskaraz izango da eta material guztia Hobby&Artek jarriko du. 10-15 urteko gazteei bideratutako tailerra da. Plentzian errolatuek 25 euro eta gainontzekoek 35 euro ordaindu beharko dituzte. Plaza kopurua mugatua da eta abenduaren 15a izango da izena emateko azken eguna.

Informazio gehiago: 94 677 55 41

ABENDUKO EKINTZAK URDULIZEN

Ekintzez gainezka dago Urdulizko gaztetxoaren abenduko agenda. Hilaren 15ean zinea izango da arrastiko 18:00etan. Honez gain, Kultur Etxeak antolatu duen Gabonetako Txartel Lehiaketako lanak aurkezteko azken eguna izango da. 20rako Gabonetako tailer berezia antolatu dute, 17:30etik 20:00etara. 22an *Gabon Kontuk* txotxongilo ikuskizunarekin gozatzeko aukera egongo da eguerdian, Deabru Beltzak taldearen eskutik. 24an Olentzero menditik jaitsi eta Urdulizko kaleetatik ibiliko da, arratsaldeko 6etatik aurrera. Eguberrietako oporretan ondo pasa ahal izateko, Umeentzako Gabonetako Parkea egongo da polikiroldegian abenduaren 26 eta 27an.

GORLIZ

Munduko Taichi Txapelketa irabazi du Gorlizko taldeak



Gorliz-Sopela taichi taldeko kideek erakustaldi batean

Gasteizen ospatu zen urrian Munduko Taichi Txapelketa. Bertan, Ingalaterra, Espainia, Frantzia, Txina, Italia eta munduko hainbat txokotatik etorritako lagunak bildu ziren; baita Wudangeko monjeak ere. Hauekin batera, Taoismoaren maisua den abadea hurbildu zen eta ikastaro ederra eman zuen bertan bildu ziren guztientzat. Gorliz-Sopela taichi taldeko kideek txapelketa parte hartu zuten Euskal Herriaren izenean. Lehenengo eta bigarren postua lortu zuten Elite eta Tradizio kategorietan. Giro

ezin hobea izan zen txapelketa eta esperientziak konpartitzeko aukera izan zuten bertan bildu zirenak.

Orain dela bost urte sortu zen Gorliz-Sopela taldea. Gaur egun, Uribe Kosta osoko 14 eta 65 urte bitarteko 100 gizon-emakumek osatzen dute. Ezagutzen ez dutenek, guxtiatsi egiten dute taichia eta ez dute kirol bat denik uste. Baina Gorliz-Sopelako lagunek, osasunerako eta erlaxaziorako terapia aparta izateaz gain, beste kirol batzuen osagarria ere badela argi daukate. ○

Abe. 13 - abe. 24

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GORLIZ

► **Uraren kontsumo kanpaina.** Erakusgela. Abenduak 15, zapatua. 10:00-14:00, 16:00-19:00.

PLENTZIA

► **Txalaparta erakusketak Ukestaldeen eskutik.** Abenduak 16, domeka. 12:00-15:00.

LEIOA

► **Antzinako jostailuak 1875-1960.** Abenduaren 3tik urtarrilaren 27ra.

GETXO

► **Getxotik mundura, mundutik Getxora.** Erromoko aretoa. Abenduaren 15era arte.

► **Fotorretro 2007: Antzinako argazkiak.** Areetako geltoki plazan. Abenduaren 7tik 16ra.

► **Lucia Gisasola del Tioren grabatuak.** Erromoko erakustaretoa. Abenduaren 19tik urtarrilaren 4ra.

► **Getxolandia.** Areetako geltokia eta Santa Eugenia plazetan. Abenduaren 21etik urtarrilaren 5era.

MUSIKA

LEIOA

► **Leioako gazte orkestra.** Auditorium. Abenduak 19, eguaztena. 20:30.

► **Leioako Koralak.** Auditorium. Abenduak 20, eguna. 20:30.

► **Leioako Musika Banda eta Orpheo ganbara Abesbatza.** Auditorium. Abenduak 21, barikua. 20:30.

ZINEMA

GORLIZ

► **Betizu izar artean.**



► **Kirola**

Leioako XII. mendi astea

Abenduaren 17tik 20ra eskalatzailerak eta alpinistak ezagunak Leioako Sakoneta Udal Polikiroldegian hitzaldiak eta proiektio emanaldi ugari eskainiko dituzte. Saioak arratsaldeko 8etan hasiko dira, kiroldegiko erabilpen anitzeko gelan. Abenduaren 17an Kepa Escribanok “*Taghia XXI. Mendeko Big Wall-ak*” hitzaldia aurkeztuko du eta hurrengo egunean, martitzenean, Roberto Rodrigok “*Cordillera Thien Shan ascensiones a Khan Tengri (7.101 m) y Pico Póbeda (7.439 m)*” hitzaldia. Eguaztenean, Iker Iriondo eta Koldo Zubimendi Cho Oyuz mintzatuko dira. Eta azkenik, egunean, Joel Sepúlveda eta Maddalen Mendizabalek Kyrgiztanen alde ezezagunen berri emango dute.

• **Non:** Leioako Sakoneta kiroldegia • **Noiz:** abenduaren 17tik 20ra

Erakusgela. Abenduak 16, domeka. 17:00.

URDULIZ

► **Los seis signos de la luz.** Polikiroldegia. Abenduak 15, zapatua. 19:30. Sarrera: 2 euro.

GETXO

► **Indígenas (días de gloria).** Getxo Antzokia. Abenduak 14, barikua. 22:00. Sarrera 2,90 euro.

► **La telaraña de Carlota.** Getxo Antzokia. Abenduak 16,

domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera 2,10 euro.

► **Un café en cualquier esquina.** Getxo Antzokia. Abenduak 19, eguaztena. 19:30. Sarrera 2,90 euro.

► **Juegos secretos.** Getxo Antzokia. Abenduak 21, barikua. 22:00. Sarrera 2,90 euro.

LEIOA

► **No acepto! 1980-1990. Diez años de hardcore, punk, ira y caos.** Arte ederretako fakultatea. Abenduak 13. 11:00.

ANTZERKIA

LEIOA

► **Bremengo musikariak.** Teatro Paraiso Cia. Auditorium. Abenduak 26, eguaztena. 18:00. Sarrera: 4 euro.

GETXO

► **Besarkada.** Totum. Getxo Antzokia. Abenduak 14, barikua. 19:30. Sarrera: 3 euro.

URDULIZ

► **Olentzero eta kutun magikoa.** Kiroldegia. Abenduaren 14ra arte. 10:00/18:30.

BESTEAK

LEIOA

► **Leioako XX. Nekazal eta Abeltzaintza azoka.** Abenduak 16, domeka.

BERANGO

► **Gabonetako I. pilota txapelketa.** Frontoia. Abenduak 16, domeka. 10:30.

► **Eskulan tailerra.** Nagusien Etxea. Abenduak 17 eta 18. 17:00-19:00.

► **Mundu bat GKEaren aldeko bingo solidarioa.** Nagusien Etxea. Abenduak 19, eguaztena. 18:00.

► **Gabonetako askaria ostirala. 18:30. Nagusien Etxean.** Nagusien Etxea. Abenduak 21, barikua. 18:30.

BARRIKA

► **“Rosa in Storyland” txotxongilo saioa.** Liburutegi zaharra. Abenduak 26, eguaztena. 12:00.

GORLIZ

► **Gabonetako tailerra eta ipuin kontalaria.** Ikastetxea. Abenduak 22, zapatua. 17:00-19:00.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIO
INGENIARITZA
INSTALAZIOA
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]




Euskara showa

Atzerritik gurera bizitzera etorritako lagunak eta bertokoak elkarrekin kantuan aritu ziren Algortako kasinoan azaroaren 30ean, Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatutako II. Euskara Showan, kulturen arteko karaoke berezian. Entzuleek ere -lagun mordoia bildu zen kasinora- parte hartu zuten karaokean pantaila erraldoian kanten letrak jarraituz. Euskara Showan parte hartu zutenak herrian dagoen kultura eta jatorri aniztasunaren erakusgarri argia izan ziren.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Arropak garbitzen

Gu

[berbetan]

Abenduaren 3an, Euskararen egunean, bere etxean hartu gaitu Francisco Javier Urretxua Libanok. “*Ez Paco, ez Francisco, maite eta ezagutzen nautenek Pakiko deitu izan didate beti*” argitu digu berak. Eta “*nire izen osoa erabiliz, Francisco Javier, amak baino ez zidan deitzen*” gaineratu. Portu Zaharreko seme honek 78 urte dauzka eta sasoi bete-betean dago. Bizitzari txinpartak ateratzen dizkion gizon jakintsu eta langilea da; San Nikolas ikastolako burua izan zen frankismoaren garai ilunetan, Getxoko alkatea gerraosteko lehenengo hateskundeak eta gero, eta gainera 40 urtez makina bat getxoztar osatu ditu, izan ere, medikua da lanbidez. Eta Eusko Ikaskuntzako Ohorezko kidea ere bada.

Pakiko Urretxua

Gizon on bat

Testua: **Jokin Aspuru** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Algortako San Nikolas ikastolarekin lotura handia eduki duzu Pakiko...

—Halaxe da, ikastolaren hiru aldiak bizi izan ditut eta. Lehenengoa, klandestinitatearena izan zen eta niretzat ohore handia izan da hori. Datak ez ditut zehazki gogoratzen baina 1963 aldera izango zen. Garai hartan haurrek etxe partikularretan hartzen zituzten eskolak, eta gure etxera ere etortzen ziren ikastera. Aulkitxoekin eta liburuekin joan behar izaten zuten haurrek etxerik etxe ikastera. Garai hartan, izkutuan genbiltzan gure seme alabak euskaraz hezitzen. Gure etxean, Portu Zaharraren alboan geneukan etxe batean urtebete egon zen ikastola. Han hasi zuen San Nikolas ikastolak bere ibilbidea. Ondo daki-zunez, ikastola gehienak, Ander Deuna, Karmelo... elizaren itzalean edo babesean sortu ziren eta hementxe antzera gertatu zen. Eta Algortako patroia izanik, San Nikolas izena ipini genion ikastolari. Garai hura nahasia izan zen baina haurrei euskaraz eskolak ematen hasia lortu zen. Gero bigarren garaia etorri zen, Bidebarri kaleko egoitzara aldatu ginenean. Lonja bat hartu genuen, handitxoa


zen baina zorionez laster txiki lotu zen. Orduan Francoren gobernuak apur bat bigundu zituen euskararen kontrako neurriak, eta nahiz eta ikastolak baimendu ez nolabaiteko onarpena egoten hasi zen. Orduan, norbaiten izena behar zen, promotore edo titular bat erakundearen erantzulea izango zena. Eta titular hori ni izatea proposatu zidaten gurasoek. Eta nire izenean, zabaldu zen San Nikolas ikastola “ofizialki”,

“Gorriak ikusi genituen gure seme alabek euskaraz ikas zezaten baina pozgarria ere bazen”

ez guztiz baina, 1969-70 urtean. Gobernu zibilak, legezko titularrari halabeharrez erantzun behar zuen galdera bat luzatzen zion: “Es usted, adicto al movimiento, no adicto al movimiento o indiferente?” Nik *indiferente* nintzela esan nuen eta kalifikazio horregaz nolabaiteko onarpena eman ziguten. Bidebarri ikastola sortu zenean, ikastolako presidente izendatu ninduten. Aurretik Patxo

Jimenez Egizabal egon zen eta gero ni. Eta ondoren hirugarren garaia etorri zen, erabateko legalizazioa. Hori Arenera aldatu ginenean gertatu zen. Gurasoen batzarrak euskaraz abiatzen ziren, gero erdaraz egiten ziren askok ez zekitelako euskaraz. Gobernu zibilak, ordezkari bat bidaltzen zuen batzar horietara beti. Baina berez ez zen ordezkaria, *pitxikoma* bat zen gizajoa, polizia. Eta han hitz eginda-koaren akta eman behar zitzaion, eta jakina,

euskaraz esaten zena erdaratu behar izaten genuen. Beraz, ikastolaren hiru etapa edo garai horiek bizi izan ditut, klandestinitatea, permisibilitatea eta onarpen ofiziala. Hamabi urte eman nituen presidente eta beste leku-koa pasatu behar zitzaion, hori 1974 edo 1975an izango zen. Gero etorri ziren Andoni Iriondo, Ortiz de Zarate eta beste batzuk. Maitasun handiz gogoratzen dut ikastolako



garai hura; gorriak ikusi genituen gure haurrak euskaraz ikas zezaten baina pozgarria ere bazen.

—**Zerk bultzatu zintuen hain ahalegin handia egitera?**

—Batez ere nire euskararekiko maitasunak. Zoritxarrez guri ez ziguten euskara irakatsi. Maitasun horrek eta gu euskaraz bizi ezin izanak bultzatu ninduen. Ni orain euskararen transmisore sentitzen naiz, nire seme alabei nik izan ez nuen aukera eskaini nien. Gaur egun, jainkoari esker, nire seme alabek eta ilobek euskaraz egiten dute guztiek eta ohorea da hori niretzat. Eta gainera euskara zabalduz doa eta hori pozgarria da.

—**Arenen ikastola eraiki zen baina lehenengo urteetan ez ziren gaur egun bezala laguntza ofizialik egongo, ezta? Zelan lortzen zenuen dirua?**

—Lurrak erosi, eraikina egin, irakasleei soldatak ordaindu, guztia ordaintzeko dirua lortu behar zen. Nondik zetorren hori guztia egiteko dirua? Gure poltsikoetatik. Oker ez banago 30.000 pezetako bonoak saltzen genituen, dirutza zen hori orduan. Nik hiruzpalau erosi nituen. Etxez etxe joaten ginen, herriko eskultzaleengana jotzen genuen eta zer egin nahi genuen azaltzen genien eta dirua eskatu ere bai. Venezuelatik ere dirua etorri zen, han bizi zen euskaldun batek baino gehiagok dirutxua eman zidan niri ikastolarako. Ni ez nintzen dirua lortzen bakarria, jakina. Lagun asko genbiltzan horretan. Baina gehien animatzen eta indarbertitzen gintuena Algortan euskararen alde zegoen giroa eta ilusioa ziren. Kolore politiko guztietako lagunak elkartu ginen zeregin hartan.

—**Ikastolako presidenteren kargoa utzi eta laster politikara egin zenuen jauzi, Getxoko alkate izan zinen Franco hil eta gero.**

—Ni EAJko afiliatua naiz 1976tik. 1979ko lehenengo udal hauteskunde demokratikoean, ni Getxoko lehengo alkate ipini nahi izan ninduten alderdikideek. Zerrendan lehenengo nintzen alderdiak hala erabakita. Hauteskundeak gehiengoz irabazi genituen, 25 zinegotzietatik 13 lortu genituen, baina ni ikaratu nintzen, izan ere oso lotsatia naiz. Ze-

rendan bigarren zihoana, Jesus Javier Agirre Bilbao ipini zuten alkate. Bera izan zen Getxoko Franco osteko lehenengo alkate demokratikoa. Ni zinegotzi. Baina hauteskundeak eta urtebete beranduago, Agirre Bilbao jauna sortu berria zen Eusko Jaurlaritzako osasun sailko arduradun izendatu zuten. Garaikoetxea zen lehendakaria. Eta orduan alderdian argi esan zidaten: orain bai, orain zu izango zara

“Salatu ninduten arte, ikurrina eta Getxoko ikurra eskegi nituen udaletxean”

alkate. Eta ni beldur gutxiago neukan, udalean eskarmentu apur bat hartua nuen-eta. 1980an alkatearen makila eman zidaten. Legealdia amaitu eta gero Juan Manuel Barquini eman nion makila bera.

—**Zelan gogorutzen dituzu urte haiek?**
—Gauza onak eta txarrak gogoratzen ditut, baina batez ere asko sufritu nuela gogoratzen dut. Presoak euren askapenerako egunak marikatzen dituzten moduan ibiltzen nintzen ni kargua uzteko eguna noiz helduko zen zain. Hala ere, egin nituen gauza onak ere atsegin handiz gogoratzen ditut. Esaterako, garai nahasiak ziren eta manifestazioak eta atxilotuak egoten ziren. Artean, alkate izanak bazekukan guardia zibila eta poliziaren aurrean eragirik. Nik komisaldegietatik, txintxorrotik, getxoztar bat baino gehiago atera dut, bai Bilboko komisaldegitik eta bai guardia zibilak

“Erantzunkizunaren zentzua baldin badauka batek, sufrimendua da agintean egotea”

Algortan San Inazioen zeukan koarteleatik. Satisfakzio handia izan da hori niretzat. Alkate nintzela ere poztasun handia hartu nuen 1980ko abenduaren 23an. Egun horretan *probintzia traidoreoi* kontzertu ekonomikoa itzuli zitzaigun. Zirrara handiz gogoratzen dut, batetik itzulpen historikoa zelako eta bestetik, niretzat Madrilerako bidaiak amaitzen zirela-

ko. Izan ere, hara joan behar nuen udalerako dirua eskatzera. Udaletarako dirua Madrilen banatzen zen orduan. Hango pentsioetan lo egin dut herrirako ziren 60 milioi pezetarekin poltsikoan.

Alkate moduan badaukat gero txarto atera zen beste poztasun handi bat. Domeka eta jaiegun guztietan ikurrina eta Getxoko ikurra eskegitzen hasi nintzen udaletxean, lehenago

hori, jakina, Espainiako banderarekin egiten zen. Hilabete bat baino ez zuen iraun horrek, UCDko kide batek salatu ninduen arte. Debeku agindua etorri zen eta ezin izan nuen horrekin jarraitu.

Baina beste gauza bat ere esan nahi dizut. Erantzunkizunaren zentzua baldin badauka, sufrimendua da agintean egotea. Aurpegigogorra baldin bada bat, eramangarriagoa izaten da. Baina ni ez naiz horrelakoa. Beti koadernotxoa eta idazteko boligrafoa neramatzan aldean eta hantxe idazten nituen kalean aurkitzen nituen herritarren eskakizun guztiak, eta asko izaten ziren.

—**Politika, ikastola... baina zure lanbidea medikuntza izan da beti.**

—1958tik 2000ra ibili naiz mediku, 40 urte baino gehiago. Mediku analista eta pediatra izan naiz. Eta kolegiaturik segitzen dut, hau da,

naiz. Medikuen ordezkapen mordo egin nituen eta ez dut handikia izan nahi baina aldi berean zazpi edo zortzi mediku ordezkatu izan nituen, izan ere, abuztuan denek alde egiten zuten. Dirua behar nuen eta bederati urtez egon nintzen horrela lanean lanpostu finkoa lortu nuen arte. Getxoko mediku titularrak izan nintzen. Lehenago esatea ahaztu zait, autopsiak ere egin nituen. Getxoko kanposantuan badago gelatxo bat eta han egiten nituen. Hura lan nazkagarria! Whisky bi hartu behar izaten nituen gorpuak zabaldu ahal izateko. Oso gogorra da hildakoekin lan egitea. Esan bezala, whisky bi hartu behar izaten nituen. Gorpuak ere enbalsamatu ditut. Zer egin ez dut nik ba medikuntzan? Plaza lortu eta Leioan pediatra hasi nintzen, lehenengo izan nintzen ni han.

—**Gaur egun medikuek beste garai batzuetan zeukaten ospea gainbehera dagoela ematen du, ezta?**

—Orain medikuntza demokratizatu da eta desprestigiatu akaso ere bai. Medikuntza normaldu da. Baina jendeak gu errespetzen jarraitzen duela uste dut. Badaukagu autoritate bat, gaixoak sendatzeko gai garelako. Baina zure galderaren harira, nik lehengo garai haien erremisentiak bizi izan ditut, euren gaixoak jaiotzen zirenetik hil arte ezagutzen zituzten familia mediku haienak. Gogoratzen dut esaterako, abendu partean, tx-

ribodak egiten diren sasoian, Getxon, Azkorri inguruan bisita bat egitera joan eta inguruko baserrietatik etortzen zitzaizkidala odoloste, txorizo edota saiheskia ematera. Opariak ziren, errespetua eta esker ona adierazteko modu bat.

—**Gaia aldatuz Pakiko, herriari oso lotuta egon zara beti, herriko elkarteetan parte hartuz.**

—Bai, esaterako Biotz Alaiko lehenengo bazkidea izan naiz, ez abeslari moduan, kuota ordaintzen zutenen artean bat zenbaki zeu-

naiz. Baina txantxak alde batera utziz, nire bazter kuttuna Portu Zaharra da. Eta gero, neurri berean Getxoko Iberre ingurua, izan ere, hantxe dago nire aititeren sorlekua izan zen baserria. Areetan ere mediku izan nintzen eta auzo horrek betetzen du nire bihotzaren hirugarren zatia. Lagun handiak dauzkat han eta astean behin hara joaten naiz hango lagunekin txikito batzuk hartzera.

—**Lan eta lan beti, amaitzeko Pakiko, kontaguzuz aisialdia zelan bete izan duzun.**

“Medikua nintzen eta txorizoak, odolosteak eta saiheskiak oparitzen zizkidaten baserritarrek”

kan nire karnetak. Nire aitagarreba, Roman Zestona, abesbatzaren ohorezko presidentea izan zen eta berarengandik datorkit taldearekiko lotura. Algortako Kasinoko bazkidea ere banaiz. Egia da, oso algortar eta getxoztar sentitzen naiz.

—**Zein da ba, herri honetan zure bihotzeko bazterra?**

—San Nikolas kaleko 11.ean jaio nintzen. Kale nagusia zen orduan eta Portu Zaharra eta Algortako mugan dago. Komeni zaidanean Portu Zaharrekoa naizela esaten dut beste batzutan berriz, goikoa, Algortakoa izaten


—Jataben badaukat lur zatitxo bat eta ia egunero joaten naiz, 3-4 ordu ematen ditut han soloan beharrean. Medikua naizenez inguruko baserritarrek deitzen didate eta gauza asko oparitu ere bai. Bazter hura ere asko maite dut, izan ere, orain dela 30 urte baino gehiago ibiltzen naiz handik. Txirindulan ibiltzea ere nire beste zaletasun handia izan da. Eta ezin dut Athletic ahaztu, jarraitzaile porrokatua naiz. Arrantza asko gustatu izan zait baina haizetan egiten dena. Eta txapiroietara joatea. Eta esku pilota... ○



Eguzkigrafiak

Zeruaren gainean Eguzkiak egiten duen bere mugimenduan uzten duen arrastoa jasotzen duen irudiari esaten zaio “solarigrafia”, edo guk euskararako asmatu dugun moduan, “eguzkigrafia”. Diego Lopez Calvinek, coca-cola latez egindako kamera estenopeikoak, material fotosentikorrek eta ia hilabete osoko esposizioak erabiliz Getxo “eguzkigrafiatu” zuen aurtengo udan partean. Orrialdeotan lan esperimental horren emaitza daukazue.


Argazkiak: **Diego Lopez Calvin**



ALGORTAKO SAN NIKOLAS ELIZA



UK-PEN EBREDAKZOTIK BISTA



UR BILTEGIA GETXON



PAELLA EGUNA



BIZKAIKO ZUBIA

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Tellexe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZAKO
MODA

Tellexe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarrri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

XXX. urteurrena

Lekeitioko Euskal Zine eta Bideo Bilerak
inoiz baino **sasoitsuago** amaitu da



Mateo txistu film historikoa ere ikusi ahal izan da jaialdian

Belu ibili ginen iragartzeko, baina Euskal Zine eta Bideo Bilerak (EZBB) leku berezia merezi eta irabazi du gurean. Horregatik, orain dela aste batzuk (azaroak 19-24) amaitu zen Lekeitioko euskal zinemaldiaren berri emango dugu ostean, *antzarak* nortzuk jaso zituzten jakin dezazuen.

Lehenengo, EZBBko antolatzaileak zoriondu behar ditugu, aurten XXX. urteurrena ospatu dute eta. Hori dela eta, 15 eguneko egitaraua prestatu zuten; lehenengo astean zinemaldiaren atzera begirakoa egin zuten (aurreko urteetako lekeitiarren lanak, kartelen erakusketa etab.). Bigarren astea izan zen aurtengo lehiaketari zuzendutakoa eta sekula baino lan gehiago eskaini dituzte aurten, 46 film, horien erdia amateurrenak. Horrekaz guztiakaz gozatzeko zaleek Ikusgarri zinema aretoa guztiz bete dute.

Horrez gainera, Iñaki Billelabeitia, Natxo Rodriguez, Patxo Telleria eta Eneko Olasagastik osatutako epaimahaiak ez du utzi sari bat ere eman barik aurten. Hala,

ondorengo lanak saritu dituzte: Urrezko antzara sormen sailean *Ardoaren negarra* (Logela Multimedia; sormen atalean; iaz ere irabazi zuten), eta bigarren lotu da *Midori* (Koldo Almandoz). Profesionalen ataleko irabazleak hauek dira: *Setioa* (Telmo Esnal; dokumentala) eta *Itzalak* (Iñigo Kintana; argumentuzkoa). Profesional atal honetan bigarren postuan lotu dira *Heldu* (Korrikaren dokumenta-

«Ardoaren negarra; Setioa; Itzalak; Su eta lore artean; All about eves; Berde... daude sarituen artean»

la; Unai Iturriaga, K. Eriz eta X. Iñarraoraegi) eta *Bilintx* (Jon Andueza; argumentuzkoa); Amateurren ataleko sarituak dira: *Su eta lore artean* (Lander Arbelaitz; dokumentala), *All about eves* (Gentzane Agirre, sormena; *Un rest* bere lanak ere aipamen-berezia jaso du) eta *Berde* (J. L. Barredo eta Iñigo Garcia; argumentuzkoa). ○

Chalwa Band, reggae taldea

Zuzenekoak emateko irrikitan daude, jamaikar berotasunaz giroa berotzeko asmoz



Hiru bat kontzertu eman dituzte, horietako bat aurtengo Urdulizko Kakarraldo Sunsplash jaialdian

laz erin zuten hazia, baina taldekideen arteko barne eztabaidaren ondorioz, adostasuneko erabakia hartu zuten eta hazi hartatik bi landare erne zirela esan daiteke. Landare horietako bat Chalwa Band izenagaz erne da, "reggaearen panorama bultzatzeko asmoz; talde honetan denok batu gara proiektu hau aurrera eramateko". Urduliz, Algorta, Bilbo, Gasteiz, Ingalaterra eta Dominikar Errepublikako taldekideez osatzen da taldea; horrez gainera, kolaboratzaile andana ere izaten dituzte ohol-tza gainean. Reggae bandako taldekideak gaur egun (batzuk orain atzerrian badaude ere) hurrengoak dira: Charles eta Gorka (Lone Ark) teklaturtan, Oskar eta Andoni gitarra-

gaz, Lander baterian, Carlos baxuan, Andoni eta Eguzkiñe saxoagaz (altua eta tenorea, hurrenez hurren), Jokin perkusioan, Milena tronpetagaz eta Andoni tronboiagaz. Taldekideetako zenbait Charlesen bidez sartu dira Chalwan. Abeslari bila badabilta ere, kolaboratzaileen laguntzaz ez zaie ahotsik falta izan orain arte. Berangoko Grabasonicen entseguak egiten dituen taldearen helburu nagusia "ahalik eta zuzeneko kontzertu gehien ematea da"; halere, *backing band* legez jarduteko prest daude. Maketa edo diskoren bat kaleratzeko asmoa ere badute, "datorren urteko uda baino lehen edo".

Informazioa: myspace.com/chalwaband
Harremanetarako: 616 291 121

Gabon Kantak > Leioako ahotsakaz

Leioa Kantika Koralak *Gabon Kantika!* diskoa laster egongo da kalean. 15 konpositorek kantu bana sortu dute beren-beregi Leioako haur-abetesbatzak abestu ditzaten, konpositoreen artean daude: Ko Matsushita (Japonia), Dante Andreo (Argentina), Pelle Olofson (Suedia), Vytautas Mishkinis (Lituania), Espainiako Alejandro Yagüe, Xavier Pastrana, Marcelo Beltran...; eta Euskal Herriko David Azurza, Junkal Guerrero, Eva Ugalde, Javi Busto, Xabier Sarasola eta Josu Elberdin. Diskoa honela aurkeztu du abesbatzako zuzendari Basilio Astulezek: "Gure 15 altxor txiki, Gabonak ikusi eta bizitzeko 15 era berri, 15 kolore, eta baita ere 15 opari. Batzuetan toki desberdinetako folklorea oinarritu eta bestetan testu kristauak erabiliz sortzen diren 15 istorio dira".

diskoa > MAK, bueltan!

Bi urteko geldialdia egin ostean, ohoitza gainera eta plazara itzuli da MAK (Musika Armatu Komando) taldea. *Suaren garai, Errauts Erreka* disko berriagaz. Orangoan jazz eta funk ikutuak indartu eta gehitu dizkiote berezko duten hip-hop oinarriari, horien gainean amorrut betetako berbak rapeatzen dituztela. Zuzenekoetarako *MAK kanal akustiko* ikuskizuna ere prestatu dute. Ipar Euskal Herriatik datozen doinu raperoakaz gozatu gura duenak ez dezala disko hau ahaztu!

Informazioa: www.myspace.com/makhiphop

diskoak

Anek idatzi dit zutaz
Mikel Urdangarin
KAP produkzioak



Gainontzeko diskoegaz konparatuz gero, *Anek idatzi dit zutaz* lanean urriak dira kantautoreak berak idatzitako letrak. Abesti guztietan nabarmetzen dira zati instrumentalak. Denak entzuten dira izugarriko gardentasunez, eta sustrai tradizionalatik sorturiko folklorea eritmoak jarraitzen ditu.

The Mystery spot
Five Horse Jonson
Small Stone Records



Blues baldarra eta hegoaldeko rocka dira nagusi *The Mystery spot* diska honetan. Ohioko taldea 70. hamarkadako musika estiloen jarraitzaile izanik, estilo horretako zaleentzat ur bedeinkatua izango da Five Horse Jonsonen kaleratutako azken lana.

Elkarrekin
Bilduma
Musik-herria



Musik-herria herri disketeak Durangoko azokara begira kaleratu duen disko berezia daukagu *Elkarrekin*: errepresaliatuak eta musikariak. Disko honetan, musika talde batzuek zenbait errepresaliatu politikoren hitzak, poemak eta gutunak uzartu dituzte. Talde hauen artean, Kloraita, Kop, SKT Sekuentzia, Gartzen, El Trono de Judas, Korumbá, Kasu!...

Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estazioa

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50
merkeago
garbituko dizugu
autoa!!!!

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

etorri
eta
ikusii!



ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Zeru-lurreko jaunik ote?

Joxe Arregik Jainkoaz galdezka liburuan batu ditu 40 euskal idazleren erantzunak

Arantzazun bizi den Joxe Arregi (Azpeitia, 1952) Teologian doktoareak Jainkoaren gainean 40 euskal idazlek duten uste eta iritziak bildu ditu; aburu eta ikuspegi horrekaz guztiakaz *Jainkoaz Galdezka* saiakera liburua atondu du.

Mendeetako sinesmena krisian egotea izan da Deustuko Unibertsitateko irakasleak lanari ekiteko arrazoia. Unibertsitatean bertan ikasleei egindako inkesta bat egaz ekin zion lanari, eta horren emaitzakaz berak zuzentzen duen *Hemen* aldizkari erlijiosoan artikulua idatzi zuen.

Ostean, Edorta Jimenez idalegagaz batera *Jainkorik bai ala ez?* liburua argitaratu du aurten. Hala, Jainkoarekiko gizarreak

«**Urretabizkaia, Izagirre, Lete, Elorriaga, Azurmendi, Borda, Irastorza....**»

edo kulturak duen jakinmina asetzeko asmoz edo, azken pausua (momentuz) izan da *Jainkoaz galdezka* lana. Horretan, Arregik prestatutako bost galderari, besteak beste, hurrengo idazleek emandako erantzunak aurki daitezke: Arantza Urretabizkaia, Joxe Azurmendi, Koldo Izagirre, Unai Elorriaga, Uxue Alberdi, Tere Irastortza, Xabier Lete, Jose Antonio Artze, Itxaro Borda, Ana Urkiza etab. Galdera



Idazleen artean fededunak eta fedebakoak daude

horiei erantzuteko zergatik aukeratu dituen idazleak itaunduta zera adierazi du azpeitiarrak: *"Jainkoaren kontzeptuak gure kulturaren duen tokia zein den jakin nahi nuelako, eta idazleak direlako kulturaren lekuko zuzenak"*. Euskal idazleen artean, zelan ez, fededun eta fedebakoak daude eta bakoitzak bere estiloan erantzun ditu Arregiren bost galderak; orotara, 251 orrialdetan zehar irakur daitezke Jainkoaren gaineko hamaika aburu.

Alberdania argialetxeak banatuko du Durangoko Azokan aurkeztu berri den *Jainkoaz Galdezka* saiakera liburua.

Euskal kulturaren eta gizartearen "isla" izan daitezkeen heinean, euskal idazleen iritzien berri izatea interesgarria litzateke; oster, zeru-lurreko jaunik ba al dago zure ustez? ○

liburuak



Balentxi. Hamalagunen...
Jexuxmari Zalakain
Txalaparta

Hamabi lagun hartu zituen harekin Jesus Nazaretekoak. Bat ustel atera zitzaion, Judas. Haren orde, beste bi hartu zituzten: hamahiru apostolu guztira. Oteizak berriz, Arantzazun hamalau apostolu ezarri zituen. Idazlearen arabera, Balentxi da hamalagunen hori, euskal apaiz matxinoa.



Bagdadeko aurpegiak
Juan Kruz Igerabide
Erein

Ali txikiaren aurpegia, bonbaz zartaturiko Bagdad hirian. Ali jakintsu sufiaren aurpegia, Erdi Aroko Bagdaden, jakinduriaren hirian. Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen aurpegiak. Bizitzaren alde borrokatzen diren aurpegiak.

[kirola]

Ibon Lavin > txirindularia

"Profesional izatea eta lasterketan aurre-aurrean ibiltzea da nire ametsa"



Entrenamenduak kostaldetik egitea du gogoko: Uribe Kosta, Lekeitio, Bermeo, Ondarra...

Euskaltel-Euskadi diruz laguntzen dion enpresaren eta erakundearen izenaz ezagutzen badugu ere, bertoko txirindulari-talde ezagunaren izena beste bat da: Euskadi Txirindularitza Iraskundea (fundazioa), hain zuzen. Euren esanetan, *"irabazi-asmorik gabeko erakundea da; euskal txirindularitza bultzatu, sustatu, zabaldu eta garatzea dira bere helburu nagusiak"*. Hala, txirindulari-talde profesionalaz gainera, txindulari gazteak hartzen ditu bere altzoan bekadun legez. Aurten hamargarren bekaduna eroan du bere babesera; berori da Lemoizen 1987an jaiotako Ibon Lavin. *"Egundokoa izan da niretzat dei hori jasotzea! Bekadun izatea pribilegioa da! Euek zaintzen zaituzte, prestakuntza, materiala, mediku-zerbitzua, entrenamenduak... hori guztia beraiek antolatzen edo ematen dizute. Ondo bazabiltza goiko taldera igotzen zaituzte eta hori sekulakoa da!"*, adierazi du gogotsu lemoiztarrak. Orain dela hamar bat urte hartu zuen txirindulari, futbolearen oso txarra ei zelako. Erkoreka taldean hasi zen, gero Lubeko, Seguros Bilbao eta abarretan ibili da "Euskaltelen" deia jaso arte; hurrengo urtean Alfus Tedes taldean jardungo

du. Bidasoako Itzulia, Goierriko Itzulia edota Birako mendateak ditu orain buruan, aldapan gora molda-tzen ei delako hoberen. Aitortu digunez, txirindularietan Ivan Basso du gogokoen, baina *"dopping kontuagaz... ez dakit ba!"*. Horren inguruan ere eman du iritzia

«Tenis edo futbolearen ez dituzte dopping kontuak azaleratzen; diru asko dago hor!»

Lavinek: *"ondo iruditzen zait doppingaren aurkako kontrolak egitea, txirindularitzaren mundua aldatzen dabilelako horregatik; jendea ez da honezkeroko dopatzen eta egiten badu, lehenago edo beranduago, harrapatuko dute. Baina tenisean edo futbolearen ez dituzte horrelako kontuak azalera-tzen, noski, hor diru asko mugitzen da!"*. Txirindularitza kirol gogorretariko delatzenak ados dago lemoiztarrak, *"asko zaindu behar duzu zeure gorputza, entrenamendu gogorrak egin, errepidean kontuz ibili... sufritzea gustuko ez baduzu ez dago zer eginik!"*. Amaitzeko, bere ametsa: *"Profesional izatea eta lasterketan aurre-aurrean ibiltzea"*. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris.S.L. SERVICIO



94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Jose Luis Ramos Uranga > margolaria

“Biluzik sentitzen naiz egindako koadroak aretoan zintzilik ikusten ditudanean”



Argazkian, Jose Luis Ramos Uranga

Jose Luis Ramos Uranga getxotarrari betidanik gustatu zaio pinturaren mundua, familian margolariak izan dituelako agian (hildako Gabriel Ramos Uranga margolari ospetsuaren anaia da). Izatez ingeniaria, ezin izan du gura zuen beste denbora margotzen jardun, eta behin jubilatuta, koadroetan arreta jartzea erabaki du. Egiten dituen koadroak lagunen artean eta Caritasen banatzen ditu.

—Noiztik hasi zinen koadroak egiten?

—Zaletasuna betidanik eduki dut baina lana dela eta, jubilatuta ezin izan naiz pinturan zentratu. Bizitza oso aktiboa eduki dut eta jubilatuta ezin nuen neure burua usteltzen utzi, aktibitatea behar nuen. Zalantza barik familiak eragina izan du nire zaletasunean: aititea, osaba eta anaia bera ere, margolariak nituen. Herri polit honek emandako aukerak ere zerikusi handia dute margotzeko inguru oso politak baitaude. Jubilatuta ondoren eta hobetzeko asmoz, Manu Balzak bi urtez irakatsi zidan Bilboko Erreproduzio Artistikoen Museoa. Az-

kenik, Euskal Herriko Akwarelisten Elkartearen sartu nintzen, etxean margotzea ez baita oso atsegina olioek eta margoek botatzen duten kiratsa dela eta; gainera, emazteak etxetik botatzeko arriskua dago.

—Zein material eta oinarri erabiltzen duzu?

—Akwarelaren berezitasuna da oso arina dela, eta horrenbestez oso azkar egin beharra dago. Olioan edozer zuzendu dezakezun bitartean, akwarelan ez duzu aukera hori: ura eta pintzela da duzun bakarra. Olioagaz ere zenbait lan egin ditut eta trebea izan naiz... gainera ikusgarriagoa da, baina gehien erabi-

li dudana akwarela izan da.

—Eta koadroak behin bukatuta...

—Erakusketak egiten ditut eta nire lagunen artean banatzen ditut, gero elizari ematen diot lortutako dirua, Caritasen txiroak lagun dituzan. Nik ateratzen dudana diru urria materiala eta egin beharreko bidaiak ordaintzeko erabiltzen dut. Nire zaletasunak ez luke aparteko gasturik eragin behar familiaren ekonomian.

—Zer sentitzen duzu zure koadroak erakusketa aretoan zintzilik daudenean?

—S striptease egitearen sentipena daukat; lotsa sentitzen dut. Ikusleen aurrean azalarazten naiz ni. Askotan erakusketa aretoan

«Jubilatu ostean ezin nuen neure burua usteltzen utzi: aktibitatea behar dut»

jende artean nabil ni eta euren komentariak entzuten ditut, eta egindako kritikei oinperatzen naiz.

—Jendeak ezagutzen al ditu zure koadroak?

—Gero eta gehiago, gainera lagun askok nire zaletasunaren inbidia dutela aitortzen didate.

—Zein margolari duzu atseginen?

—Artearen barrenean, Leonardo da Vinci da jaun eta jabe. Izugarriko indarra duen gizona da, bere potentziak liluraturik uzten nau. Koloreari dagokionez, inpresionistak ditut gustukoak, eta horien artean, Van Gogh.

—Pinturaz bizi daiteke bat?

—Nire uste apalean bai, baina oztopo ugari-gaz. Gabik, nire anaiak, horrela egin zuen behintzat, asko kostata. Alemania eta Britainia Handiko museoek obrak saldu zizkien nire anaiak. Hala ere, bere bizitza osoan zehar ikertzen, sufritzen eta gaizki pasatzen ikusi dut bera. ○

APELLIDUAK ABIZENDU!!!!

Zure izena edo abizena
euskarazko grafiaz
jarri gura duzu?

ERRAZ-ERRAZA DAI!

5 euroren truke.

ARGIBIDEAK

ASESORIA AIZPURUA AHOLKULARITZA-ETXEA
Tel. 944639480

ASESORIA PREMIUM AHOLKULARITZA-ETXEA
Tel. 944802341

ASESORIA CONSULTORIA IBI GOBELA AHOLKULARITZA-ETXEA
Tel. 944316514

ASESORIA ZUBIETA AHOLKULARITZA-ETXEA
Tel. 944640322

ASESORIA GALEA AHOLKULARITZA-ETXEA
Tel. 944609512

GESTORIA URALDE GESTORIA (AREETA)
Tel. 944640322

IBERKO (AREETA) AHOLKULARITZA-ETXEA
Tel. 944300294

ASESORIA SATEL AHOLKULARITZA-ETXEA
Tel. 944807049

ASESORIA GESTORIA PABLO L. de URALDE S.L.
AHOLKULARITZA-ETXEA eta GESTORIA
Tel. 944308560

GESTORIA ARDANAZ ANTUÑANO GESTORIA
Tel. 944800407

edurne
marquina
garcia
josu
velasco
goikoetxea
arantzazu
irigoyen
aguirre
intxausti
lauririka
zelaia
iratxe
amaia
koldo
itziar
mendivil
bergara
leire
aretxabaleta
gorricho
ignacio
ochoa
urquijo
nekane
basterretxea



'Kao: sumendiko sekretua' bideojokoa zozketatzen dugu



KAO ordenagailuan erabiltzekoa da, 10 urtetik gorako gaztetxoentzat

Zelan parte hartu zozketan?

Oso erraz, bidali e-mail bat uk@aldizkaria.biz helbidera, subjectean KAO idatzi eta zozketan hartuko duzu parte.

Aurreko zozketaren irabazlea:
Txelu Revuelta*

* Saria jasotzeko
UKren bulegora goizez deitu:
94 491 13 37

proba ezazu KAO
www.elhuyar.org/kao wegunean



Javier Urretxua

Getxoko Udal Egoitzako sukaldaria



Javier Urretxua, Udal Egoitzako sukaldean

Leioako kanpusean Ostalaritza ikasi zuen Javier Urretxua *Jabiton* algortarrak. Bukatutakoan, Ipar Euskal Herrira alde egin zuen, bertako sukaldaritzaren sekretuak ikasteko. Bilboko Señor, Jaunak eta Amalurre jatetxeetan ere ibili da. 1992. urtetik, Getxoko Bihotz Sakratua Udal Egoitzako sukaldari nagusia da. Ostalaritzarekin zerikusirik ez daukan arren, gustura dago bertan: *"Bizi-kalitatea eman dit hemen lan egiteak. Lehen diru asko inabazten nuen, baina ez nuen hori xabutzeko astirik"*.

Ez da lan erraza: *"Nagusiak esker onekoak dira, baina baita zorrotzak ere"*. Menuak antzekoak izaten dira gehienetan eta horrek bere abiltateak aplikatzeko aukera gutxi ematen dizkio Javierri. Hala ere, egun bereziatarako irudimena martxan jarri behar du. Azaro amaieran, adibidez, edadetuen astea ospatu zuten. Honez gain,

Bihotz Sakratuaren eguna, San Lorentzo, Iñaki Deuna eta Langilearen Eguna ospatzen dituzte, besteak beste; hauetan ohiturekin bat egiten du sukaldariak: *"Herrira hurbiltzen saiatzen naiz"*. Gabonetarako, lehenengo mailako menuak prestatu ohi ditu: zizka-mizka hotzak, oilo salda, bakailaoa txipiroi saltsan, barraskiloak eta Gabonetako konpota.

Egoitzan lan egiteaz gain, enkarguzko bazkariak antolatzen ditu lagunentzat. Hauetarako prestatutako menuetan Frantziako sukaldaritzaren ukitua nabaritzen zaio: foicaren erabilera, bermut zuri saltsa, Broche azpizuna... Tendentzia berriak ezagutzeko, Gasteizen ospatu ohi den sukaldari gazteen biltzarrera joaten da urtero. Bertan, munduko sukaldari onenak batu egiten dira euren sekretuak argitzeko. o

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

GOZOLABEA
GALDARETXE

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gozariak
- txuletoia • makailua
- arrain freskuak

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA

Asador Goieztzi



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
 - Eguneroko karta berezia
 - Gazez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Turikaldoi

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezi, 10 | T: 94 460 57 57 - ALGORTA

CAFE
usategi
ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

[horoskopoa]


<p>URA</p> <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Jairik jai, edo hobeto esanda, gaurik gau ibili izan zara azkeneko hiru hilabeteetan. Zure gorpuzta esfortzuaren ajeak nabaritzen hasi da dagoeneko. Horrela jarraituz gero oste kronikoa jasan beharko duzu. Atsedena hartu!</p>	<p>OTSOA</p> <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Uda aurretik makina bat egitasmo zenituen egiteko, baina negua dator laster eta ez duzula pentsatutako ezer egin konturatzen zara. Egunean eguneko aprobeixatu beharra dago eta etorkizunari ez hainbeste begiratu.</p>	<p>ADARRA</p> <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Isila, lotsatia eta bakartia zara. Zure kontura bizi gura duzu, inoren bizitzan sartzeko gogorik ez duzulako. Pozik zaude horrela? Ba tira, aurrera jarraitu, baina arazoren bat izanez gero, ez laguntzarik eskatu.</p>
<p>AITZURRA</p> <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Zer da zuretzat arrakasta? Batzuentzat zoriontsu bizitzea, besteentzat erroka gogorre aurre egitea. Hainbeste aukera egonda, zergatik ez duzu zuk zeurea bilatzen? Oso erraza da, egiten duzunagaz pozik egotea da gakoa.</p>	<p>HOSTOA</p> <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Inor baino azkarragoa izan zara oporrak hartzerakoan. Jendez gainezka zeuden tokietatik eta gune turistiko “kutreetatik” ihes egin eta atsedendia orain egitea erabaki duzu. Eguraldia epela da oraindik. Ondo ibili!</p>	<p>EGUZKIA</p> <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Oporretan joateko txoko magikoak eta zoragarriak daude Euskal Herrian. Anima zaitez eta ezagutu zeure etxea. Ziur nago Benidormekoak baino ahaztezinagoak direla hemengo paraje koloretsuak. Ezagutu itzazu!</p>
<p>GARIA</p> <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Zorionak lan berriagatik! Burututako lan gogorrak emaitzak ematen dituela ikustea pizgarria da zuretzat, ezta? Berehala ospatu beharko duzu! Lagunakaz, familiagaz, bikoteagaz... <i>Bardín da, danokaz!</i></p>	<p>LASTOA</p> <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Garai txarrak dira hauek zuretzat. Buruari buelta gehiegi ematen dizkiozu eta zure jarrera bizitzaren aurrean ez da batere baikorra. Jendeak maite zaitu, lagun onak dituzu. Etorkizunean hobeto joango zaizula ziur nago.</p>	<p>IRATZEA</p> <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Bikote bila zabilzala? Ez dakit ba garairik aproposena ete den... Ez al zaude ondo bakarrik? Ez zaude ohituta norbaitegaz ibiltzen eta arazoak egon daitezke. Lasai jarraitu, ez duzu inolako buruko minik behar eta!</p>
<p>META</p> <p>(Irailak 17 urriak 16) Zure bizitzari zentzua hartzen diozu lehenbiziko aldiz. Laino grisek ostareei utzi diete lekua. Eskerrak, bazen garaia! Egunerokotasuna ez da pentsatzen zenuen bezain gaxa eta indartsu sentitzen zara. Zorionekoa zu...</p>	<p>HAZIA</p> <p>(Urriak 17 azaroak 15) Beti berandu! Beti berandu! Eskatu erloju bat zure urtebetetze egunerako, behingoz! Ez da horren faltagatik izango... Zenbat bider erreplikatu dizute denboran heltea oso garrantzitsua dela! Ematen du ez duzula inoiz ikasiko....</p>	<p>NEGUA</p> <p>(Azaroak 16 abenduak 20) “Lan lasterra, lan alferra”. Ulertzen duzu zer esan gura duen horrek? Kontuan hartzeko gomendioa da, txo! Pazientziatz hartu, okerreko bidetik joan gura ez baduzu behintzat. Gauzak ondo egin behar dira beti.</p>

MUNGIÀ
OKINDEGIÀ

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Ezker eskuin

1. Simetria dago. 2. Larrua. Bizkaieraz, simaur. 3. Gipuzkeraz, kilika-tuak. 4. Irinez, urez eta gatzaz osaturiko oreaz egiten den jangai. Konforme, bat gatoz. Iodoaren ikurra. 5. Sodioaren ikurra. Antzinako lurraldea, Adriatikoaren ipar-ekialdean. 6. Ipar., itxura. Trebe. 7. Ipar., zainketa. Bost. 8. Bazkalondo kuluska. Barazki mota. 9. Urarioaren ikurra. Bihi. Ipar., izu. 10. Lan handi. Odol-hodia.

Goitik behera

1. Barnatasun. 2. Ipar., izugari. Bokala. 3. Afrikako estatua. Pareta batean, alde batetik bestera igaro ahal izateko irekidurak. 4. Talde, multzo. Maisu edo gidari baten irakaspak hartzen ditu. 5. Pena handia. Egoskin mota. 6. Kontsonantea. Eme. (Her) Bada. Kontsonantea. 7. Ipuin. Kasik. 8. Aurkiarazi. 9. Ote, hitz elkarketan. Aurre. 10. Nahikoa. Pirinioetako oihana, Hechon. Bokala.

Soluzioak

V	N	I	A	Z	E	K	E	N		
I	Z	I	E	L	E					
V	Z	V	V	T	S	E	I	S		
Z	T	H	O	B	A	T	H	A		
O	I	V	I	V	K	A	R	T		
V	I	R	I	L	I	V	N			
I	S	O	D	A	I	G	O			
K	V	U	T	A	M	L	I	K		
S	T	S	A	V	L	V	Z			
K	O	A	R	I	K	O	A			

asmatu eta irabazi > **bi lagunentzako bazkari bat**



Nor da?

- Leitzarra
- Frontoietako behargina
- Orain dela gutxi atsekabe handia hartu du

> Aurrekoaren erantzuna: Pedro Miguel Etxenike

> Irabazlea: **Javier Molano Diez ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidalitako erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Usategi
kafetegia



Usategi parkea z/g, **Algorta**
Telf: erreserbak: 94 460 64 13



J. MANUEL AMUTIO "TOLETE"K UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Portu Zaharreko Chunga taldea, 1948

Orain dela 60 urte erromeriak ugariagoak eta jendetsuagoak izaten ziren eta horietan ibili ziren hiruzpalau urtean lagun hauek, Algortako Portu Zaharrekoak guztiak. Batez ere Getxon, baina Sopelan, Martiartuko San Antonioetan, eta abarretan ere bai, erromeriaz erromeria, giroa alaitzen zebiltzan. Goiko argazkia hain zuzen ere, Azkorriko landetan egindako erromeria batean ateratakoa da. Ez mikrofonorik, ez baflerik, ezer ez; jotzeko gogoa baino ez eta gainera, musutruk. Zerbait jateko eta edateko eskaintzen zieten eta aurrera. Pedro Arana, musikan eskarmentuan bazeukana, izan zen taldearen sortzailea eta hau desegin eta gero, orkestina baten jarraitu zuen. Erromeriaz gain, Egia, Tamarises, Plentziako Hotela... eta hauen moduko toki dotoreetako dantzaldietan jotzen zuen. ○

Atzealdean: J.Manuel Amutio "Tolete", Pedro Arana, Serafin Galin (GB), Jose Bengoetxea "Perrete"(GB), gipuzkoar bat, Valero(GB).

Makurturik: Armando Amutio(GB), Pedro M^a Royo "Navarrito".



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

AINERE TOLOSA > antzezlea

“Egunerokotasunean bizi behar da ahal den neurrian”

Testua: **Ander P. Goikoetxea**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Bere burua oraindik ezagutzen ez duen pertsona, kontraesan asko dituen. Neure burua alfertzat jotzen dut, baina era berean, egonezina naiz.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Egia esan, ez dut inor miresten. Azken finean, nire lagunak gehiago miresten ditut historiako edozein pertsonaia baino.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Buff! Nire aldamenekoei esan behar, ezta? Etxean nahiko desastrea naiz... baina beno, konfesa daitezkeenak.

Aitor dezakezun bizio bat.

Asteburuetan tabako gehiegi erretzea, eta jatea.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Buruan neukan bi hilabetetan Europa zeharkatzea eta uda honetan egin dut; kunplitu da, beraz.

Orain zarena izango ez bazina, zertan gustatuko litzaizuke jardutea?

Naizena, ez naiz damutzen eta. Txikitan ez nekien zer izan nahi nuen handitan; ez nuen nagusi izan nahi. Ez dut inoiz horretan pentsatu. Ahal den neurrian egunerokotasunean bizi behar da, beti ere, biharkoari begiratu, baina ez etorkizun batean pentsatzen, bestela...

Gaua ala eguna?

Biak, baina aukeratzekotan, gaua.

Irakurri duzun azken liburua?

Teatro cubano, baina momentu honetan ez naiz idazleaz gogoratzen.

Eta ikusi duzun azken filma?

Atzo ikusi nuen *El Circulo* pelikula iraniarra.

Zer gabe ezin zaitzke bizi?

Nire lagunik gabe. ◦

LABURREAN—Gaur egun Zarautzen bizi da Ainere Tolosa, nahiz eta izatez, zizurkildarra izan. 1979.eko irailaren 26an jaio zen Ainere. Aktorea da eta antzerkia, telebista zein zineman aritu da. *Tristek kontsolatzeko marmita* eta *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* bezalako antzezlan ezagunetan egin du behar eta azken horren pelikulan (2006an egina) aktore protagonista ere izan da. Telebistan berriz, *Altza porru*, *Irrikitan*, *Trikitraka trikitron* eta *Wazemank* saioetan egin du lan, guztiak ETB 1erako ekoiztuak. Gaur egun, antzerkietako oholzetan ibiltzeaz gain, *Noaoa* programa umoretsuagaz familia euskaldun ugari entretenitzen ditu.



2007-2008 euskarazko produktuen katalogoa



KATALOGOA GETXOKO SALTOKIETAN

Katalogoan agertzen diren produktuak Getxoko saltoki hauetan aurki ditzakezue.

BEHIN BATEAN
BOLIBAR ELORDUI LIBURUDENDA
COSAS
ERKUDEN LIBURUDENDA
ITXAS-IKUS
LA GUSANA LIBURUDENDA
LIBRERÍA-ESTANCO SAN JOSE
LIBRERÍA GOBELAURRE

LIBRERÍA ITZIAR
LIBRERÍA LAS ACACIAS
LIBRERÍA NADAL
LIBROS PAPELERIA
LIBRERÍA MAYOR 29
NORAY LIBURUDENDA
ORIXA LIBURUDENDA
ZUGATZARTE LIBURUDENDA

www.katalogoa.org
www.getxo.net